



**EAJ-PNVren esparru programa  
2008ko hauteskunde orokorrak**

euskadin bizi naiz ni.  
zu, non bizi zara?

 **EAJ  
PNV**  
[www.eaj-pnv.eu](http://www.eaj-pnv.eu)



# **EAJ-PNVren ESPARRU PROGRAMA**

## **2008KO HAUTESKUNDE OROKORRAK**

### **Aurkibidea**

- 1. HAUTESKUNDEETATIK IRTENGO DEN GOBERNUAREKIN EUSKADIREN NORMALIZAZIO POLITIKORAKO AKORDIOA LORTZEAREN ALDE.**
  - 1.1. Euskal gatazka politikoa.
  - 1.2. Gatazkari irtenbidea emateko premia larri eta luzaezina.
  - 1.3. Elkarrizketaren eta akordioaren bidez, Euskadiren normalizazio politikorantz.
  - 1.4. Ez da demokratikoki onargarria Euskadirako normalizazio politikoaren prozesuak sortzeko gaitasuna ETArri bakarrik egozte.
  - 1.5. Aukera politiko guztien garapen osoa euskal normalizazio politikorako esparru gisa.
  - 1.6. Normalizazio politikoa eta baketzea.
  
- 2. BERMEEN KULTURA ERRESPECTATZEN DUEN ESTATU EREDUA LORTZEAREN ALDE.**
  - 2.1. Kalitate demokratikoaren berrezarpena.
  - 2.2. Justizia autonomia bezala zehaztutako estatura egokitzea.
  
- 3. ESTATU EREDUAREN EGITURA BERRITZEAREN ALDE.**
  - 3.1. Autonomien estatua krisian..
  - 3.2. Gure eskumenen defentsa. Galeuscat-en zeregina.
  - 3.3. Kontituzio Epaitegiaren kasua.
  - 3.4. Senatua.
  - 3.5. Europa.
  - 3.6. Presako beharrezana: Kontzertu Ekonomikoa babestea.
  
- 4. PRODUKTIBITATEA ETA ENPLEGU BETEA LORTZEKO AHALEGIN GUZTIAK EGINGO DITUEN POLITIKA EKONOMIKO BATEN ALDE.**
  - 4.1. Ekonomia-egoeraren diagnostikoa.
  - 4.2. Ekonomia-politikaren gakoak.
  - 4.3. Estatuaren inbertsioa Euskadin.

**5. HERRITARRAK ETA KOHESIOAREN BILAKETA ARDATZ DITUZTEN ENPLEGUKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO POLITIKEN ALDE.**

- 5.1. Enplegu politikak.
- 5.2. Arlo ekonomikoko jarduera-neurriak, enplegua sustatzeko.
- 5.3. Gazteen enplegua sustatzeko neurri bereziak.
- 5.4. Enpleguarekin zerikusia daukaten arazo batzuk.
- 5.5. Lan-harremanen esparru autonomoa.
- 5.6. Lan-arloko eskumenen ikuspegia.
- 5.7. Negoziazio kolektibo propioa, esparru autonomoaren adierazpen gisa.
- 5.8. Gizarte Segurantzaren arloko hauteskunde proposamenak.
- 5.9. Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa kudeatzeko eskumenaren aldarrikapena.

**6. ELKARTASUNAREN GAINEKO GOGOETAK.**

- 6.1. Estatu soziala sendotzeko bideak.
- 6.2. Mendekotasunaren arazoa.
- 6.3. Mendekotasunari aurre egiteko proposamen zehatzak.
- 6.4. Gizarte bazterketa.
- 6.5. Minubalioetasunak.
- 6.6. Familiaren babesa.
- 6.7. Etorkizuneko politikak adineko pertsonen esparruan.

**7. ETORKIZUNEKO BELAUNALDIEKIN SOLIDARIOAK DIREN INGURUMEN POLITIKEN ALDE.**

- 7.1. Azpiegiturak eta garraioa.
- 7.2. Etxebizitza.
- 7.3. Energia.
- 7.4. Industria.
- 7.5. Lurzoruaren erabilera eta kudeaketa.
- 7.6. Hondakinen kudeaketa.
- 7.7. Naturguneen babesa eta baliabide naturalen kudeaketa.
- 7.8. Ingurumen arloko hezkuntza eta erantzukizuna.
- 7.9. Europako zuzentarauak: norainokoa eta edukiak.
- 7.10. Nazioarteko konpromiso eta protokoloak.



# 1. HAUTESKUNDEETATIK IRTENGO DEN GOBERNUAREKIN EUSKADIREN NORMALIZAZIO POLITIKORAKO AKORDIOA LORTZEAREN ALDE

## Euskal gatazka politikoa

Gero eta gutxiago dira Euskadin gatazka politikoa dagoela ukatzen dutenak, ETAREN indarkeria terroristak sortzen duena baino lehenagokoa eta askoz ere ezberdinagoa den gatazka. Eta oraindik gatazka dagoela ukatzen dutenek agerian jartzen dute defendatzen duten adierazpena ez dela egia, izan ere, behin eta berriz ukatzen dute.

ETA talde terroristak oraindik mantentzen duen indarkeriazko gatazkak, azaldu ezin daitekeena eta arrazoirik gabekoa, sortzen duen efektu sozial eta politiko suntsitzaileak Euskadin gatazka politiko nazional sakona dagoela ikustea eragotzi du sarritan. Eta, hain zuzen ere, euskal nazionalistei dagokie –eta bereziki EAJ-PNVri, euskal nazionalismoaren alderdi politiko zaharrenari– gatazka hori dagoela nabarmentzea eta horri irtenbidea emateko premia larriari buruz ohartaraztea.

Euskadiko gatazka espezifiko eta berezia ez da gizarte demokratiko guztietan ematen eta ez da Espainiako Estatuko autonomia erkidego guztietara zabal daitekeena ere, jakina.

ETAREN ekintza terrorista justifikatzen ez duen gatazka da; ezaugarri antzekoak dituzten eta indarkeriazko jarduerak sortzen ez dituzten nazioarteko hainbat gatazkek egiaztatzen dute.

Gatazka historikoa eta batez ere politikoa da, elkarbizitzaren oinarriari eragiten diena, egungo herritarren arteko adostasun eta herritarren babes nahikoa duen euskal komunitate politikoaren fundazioaren akordioa lortzea zailago bihurtzen duelako.

Bi dimentsiotan adierazten den gatazka: barrukoa eta kanpokoa.

- Lehenengoaren oinarria honakoa da: euskal herritarrok oraindik ez gara gai izan gizarte bezala osatzen gaituenaren inguruan denon adostasuna lortzeko.
- Bigarrenaren oinarria, lehenengoaren ondorioa dena, aldamenekoekin ditugun harremanak juridikoki antolatzeko moduari buruzkoa da. Proiektu kolektibo beraren inguruan euskal herritarrak elkartzeko gai den fundazioaren akordiorik ez egotea kanpoan islatzen da, izan ere, herritarren zati handi bat ez du asebetetzen Espainiako Estatuarekin dagoen harreman ereduak.

Azken batean, garenari buruzko gatazka, kolektiboki osatzeko dugun erari eta gure ingurukoekin erlazionatzeko dugun moduari buruzkoa.

Estatutu Politiko berriari, Eusko Legebiltzarreko gehiengo osoak 2004ko abenduaren 30ean onetsi eta lehendakariak Diputatuen Kongresuan 2005eko otsailaren 1ean defendatu zuen horri, EZEZKOA eman zioten PPK eta PSOEek, negoziatu ere egin gabe, Eusko Legebiltzarrak bizikidetzatza politikarako egindako proposamenari zioten mespretxua erakutsiz.

Euskadik itun bat egin dezake nazio anitzeko Estatu Espainiar batekin batera bizitzeko, baina ez kulturaren, politikaren eta legeen aldetik Euskal Aberria onartzen eta aintzat hartzen ez duen Estatu Espainiar batekin. Estatutu Politikoa, ildo horretan, hain babes zabala jaso duenez, baztertu ezineko erakunde-aktiboa da, euskal gatazkaren konponbidea bilatzeko orduan.

Euskal gatazka deitzen zaiona konpontzeko bidean bi printzipio hartu behar dira gidari:

1.- Indarkeria gaitzesten duen printzipio etikoa, eta euskal gizarteak bide erabat politiko eta demokratikoen alde hartutako konpromisoa.

2.- Euskal gizartearen borondatea errespetatzeko printzipio demokratikoa, eta aitoren hori, bere egikaritzarekin, antolamendu juridikoan sartzeko konpromisoa.

Erabakitze eskubidearen aitoren hainbat arlotako politika publikoen kudeaketari ere indarrez eta bermeekin ekin ahal izateko, geure ikuspegitik, ekonomiaren berrikuntzara eta zerbitzu eta sektore estrategikoen modernizaziora jotzen duen herri-proiektua garatuz, euskal herritarren bizi kalitatearen mailak hobetuz.

## **1.2. Gatazkari irtenbidea emateko premia larri eta luzaezina**

Euskadiko gizarte bizitza ezin da aurreko puntuan aipatutako gatazka politikoaren esparruan garatu. Arduragabetasun itsua eta kaltegarria litzateke euskal herritarren arteko elkarbizitza antolatzen saiatzea, gatazka dagoela onartu gabe eta gatazkaren iraunkortasunak Euskadiko eremu politikoan eragiten duen ezegonkortasuna aintzat hartu gabe. Arazo kolektiboak bazter utzi edo ezkutatu, komunitate politikoaren garapen armonikorako ez du batere laguntzen.

Irtenbidea behar duen gizartearen ahalegina abian jartzea ere ezin daiteke denbora gehiagoz luzatu. Gizarte arazo bat enkistatzea bezala litzateke, elkarbizitzan sortzen dituen disfuntzioak bikoiztuz.

Hortaz, euskal normalizazio politikoaren oinarriak finkatu behar dira, hau da, adostutako elkarbizitza esparrua lortu behar da, euskal gizartearen gehiengo garbiak bermatutakoa. Ikuspegi demokratikotik ez da "normala" elkarbizitzeko ereduaren egituraren aldaketa bultzatzeko gehiengoaren nahia gutxiengoaren irizpideek sistematikoki eta modu eraginkorrean eragozte. Are gutxiago, gainera, herriak libre adierazteko aukerari betoa jartzen bazaio, horretarako beren beregi deitutako herritarren kontsultaren bidez.

## **1.3. Elkarrizketaren eta akordioaren bidez, Euskadiren normalizazio politikorantz**

Euskal normalizazio politikoak elkarrizketa eta akordio prozesua eskatzen du eta ezin dute hauteskunde orokorretan irabazle aterako den alderdi politikoak bere hautagaia gobernuko presidente izendatzeko EAJ-PNVren babesa behar izatearen mende egon.

Erronka hori parlamentuko matematikaren joku zehatzera edo Gorte Nagusietan gehiengo koiunturala zabaldu behar litzateke. Alderdi politikoaren edo Legebiltzar taldeen inguruabarren arabera bizikidetzen aldi baterako interesen zoriaren mende uzteko garrantzitsuegia da.

Jakina denez, EAJ-PNVko diputatu eta senatariek beren indar parlamentario guztia jarriko dute hauteskundeetan ateratzen den gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarrizketa instituzionalaren zerbitzura; elkarrizketa horrek Euskadiko gatazka politiko bideratzeko adostutako metodo erabilgarria bilatzea eta horrela euskal herriarrek beren etorkizuna erabakitzeko benetako eskubidea izatea ahalbidetzea izan behar luke helburu.

Baina gai hori gobernu berriaren agenda politikoan gehitzea ez litzateke euskal ordezkari nazionalistak Gorte Nagusietan lortzen duen garrantziaren mendekoa izan behar, ezta osatzen den Gobernuak parlamentuaren babes zabalarekin bere lana garatzeko hautetsi nazionalistak behar izatearen arabera.

## **1.4. Ez da demokratikoki onargarria Euskadirako normalizazio politikoaren prozesuak sortzeko gaitasuna ETArri bakarrik egozte**

Orain arte Euskadin egindako normalizazio politikorako ahaleginek ETArekin ekimenekin izan dute lotura. Talde terrorista horrek, su etena erabaki edo bestelako distentsio neurriak hartzerakoan, Estatuko agintarien artean Euskadiko normalizazio politikoari heltzeko asmo esplizitua eragiten zuen, arazoari erreparorik gabe eta dituen konplexutasun guztiekin aurre eginez.

Ajuria-Eneako Paktuaren 10. puntuak eta, berrikiago, 2005eko maiatzeko Diputatuen Kongresuaren ebazpenak indarkeriaren aldi baterako amaiera elkarrizketatuaren aurrean hartuko ziratekeen erabaki politikoak "herriaren nahiaren legezko ordezkariak" baino ezin izango dituztela onetsi baieztatzen dutenean, praktikak agerian jarri duen zerbait berresten dute: ETArekin ekintza terroristaren amaiera estu-estu loturik dago Euskadiren eta Espainiaren arteko normalizazio politikorako prozesu baten hasierari, eta prozesu horrek elkarren onarpena eta errespetua izan behar ditu oinarri.

2006ko martxoan ETAk iragarritako su-etena ere Estatuko Gobernuko arduradun nagusiek "legezko arau eta jarraibideak, metodo demokratikoak [eta] herritarren eskubideak eta askatasunak errespetatuz aske hartutako euskal herritarren erabakiak" errespetatzeko nahia zabala adieraztea eragin zuen elkarrizketa markoa sortu zuen. Eta adierazpen horrek zabalduetako bidean aurrera eginez, "euskal herritarren nortasun nazionala" eta "euskal herritarrek etorkizun politikoari buruz aske eta demokratikoki hartutako erabakiak estatuko erakundeek errespetatzeko" konpromisoa onartu zen.

ETArekin amaiera errazteko nahia ez da kritikatu beharrekoa; amaiera horri "herriaren borondatearen legezko ordezkarien" lehiaketarekin demokratikoki balioztatu behar den berritze politikoaren prozesua lotzen zaio. Alderantziz, gisa horretako nahiak indarkeria amaitzeko konpromisoaren intentsitatea islatzen du.

Baina elkarrizketaren bidez bakea lortzeko huts egindako hainbat ahaleginen ondoren, herritar ugarik galdetzen dute ea onargarria den ETArekin gordetzea normalizazio politikoaren prozesua hasteko aparteko pribilegioa. Herritar

askok galdetzen dute ea ETArri monopolio hori emateak demokraziaren murrizketa larria ez dakarren berekin, izan ere, eztabaida irekiaren eta alderdi ezberdinen arteko norgehiagoka askearen gai jakinak bazter uzten ditu. Azken batean, herritar ugari zalantza egiten dute euskal agenda politikoa ETArren nahieren pean jartzea eta Euskadiko normalizazio politikoa aldeko konpromiso kolektibo sendoa hartzeko ETArren zorizko interesen mende egotea bidezkoa den ala ez.

EAJ-PNVkoak garenok ezetz uste dugu. Euskal gatazka nazionalaren ebazpena, bere konplexutasun osoan, zabal eta modu gordinetan noiz eta nola planteatu behar dugun erabakitzeke gaitasuna ezin dugu ETArren eskuetan utzi.

Protagonismoaren politikarako beharrezkoa da bakea bilatzeko legezko nahiak, iraganean, ETArren eskuetan egotera eraman gaituela aldarrikatzea. Pizgarri politikoa horrek ez du zentzurik. Euskal gatazka nazionala bideratzea herritarren nahiaren eta, azken finean, euskal gizartearen legezko ordezkarien ardura da. Horiei dagokie ekimena. ETA ez da eta ez litzateke izan behar prozesu horren giltza.

Alderdiok ekimen politikoa bultzatzeko garrantzia hortik ondorioztatzen da, ETArren asmoak eta burutu ditzakeen egintzak bazter utzita. Talde terroristak ez du utzi nahi izango izan duen gaileneko kokapen pizgarria, baina ez litzateke egokia izango gogobetetasun hori ematea.

Euskal bizitza politikoa gelditzeko nahiak, ETAk su eten berria hasi arte ekimen guztiak bertan behera utziz, talde terroristari ez dio gizarte demokratikoren eskakizunekin bateraezina den protagonismoa bakarrik ematen. Gainera, erabat faltsua den ideia du oinarri, izan ere, euskal bizitza politikoa ez dago geldi. Alderantziz, lehenago hainbat aldaketa izaten ditu, denek ez baitiote ekimen politikoa uko egin.

Estatuko erakundeek egunero hartzen dituzten euskal autogobernuaren erabaki eta neurri mugatuek ez dute hutsegitea bakarrik sortzen; objetiboki aztertuta, talde terroristak bere burua justifikatzeko egiten duen arrazoibidea handitzeko ere balio dute. ETAk euskal autogobernua kaltetu eta baliogabetzen duten estatuko botere zentralen erabakien inguruan poza adierazten duenean, indarreko ereduak, berme edo gotortzerik gabe, euskal herritarren xede nazionalerik merezitako irtenbidea ematen ez diela esanez, bistakoa da, ekimen politikoa uko egin ordez, estatua alde egon dela, jokoaren arauak aldatzen dituzten neurriak hartuz eta Euskadiko normalizazio politikoa ondorio kaltegarria eraginez.

Horren aurrean, norberaren euspena euskal gatazka nazionala bideratzera daramaten ekimenak lortzen direnean bakarrik ezarri behar den galdetu daiteke.

## **1.5. Aukera politikoa guztien garapen osoa euskal normalizazio politikorako esparru gisa**

Ez da erraza Euskadiko bezalako gizarte politikoki normalizatzea; euskal gizartearen nortasun nazional askotako herritarrek bizi dira batera. Hain zabala den espektroa aldi berean asebetetzeko marko politikoa zabala erabakitzeak malgutasunez, sormenez jokatzeko eta Zuzenbide Publikoaren dogma tradizional batzuk erlatibizatzeke prest egotea eskatzen du; dogma horiek mugak dituzten lurraldeak, burujabetza bakar eta hiritar monolitikoei emandakoak dira.

Hori hain da bistakoa, ezen euskal nazionalismoaz kanpoko espazioek ere aitortzen baituzten “euskal nortasunen sorta hain konplexuan independentziaren aldeko aukeratik erabat independentziaren aurkakoa den aukerara pasa daitezkeen mailak aurkitu” ahal izateak, irtenbideak “bizikidetzarako arauak, proiektu guztiak gauza daitezkeela bermatuz” betetzea eragiten dute.

Halako irtenbideak erakunde zentralen eta euskal erakundearen arteko adostasuna eskatzen du, Euskadiko normalizazio politikoa izan behar denaren oinarriak ezarriko dituen. Euskal gizarteak berak, bere etorkizunaren jabe izan behar dena, horren inguruan erabakitzen duena bakarrik oinarri hartzen duen normalizazioa. Planteamendu hori ez da nazionalista. Zorrozkari demokratikoa den planteamendua da eta herritarren borondateari zeregin erabakigarria ematen dio. Euskadiren etorkizunari buruzko erabakian parte hartzeke eskubidea ez da soilik euskal nazionalistezko eskubidea. Herritar guztiei laguntzen dien eskubidea da.

## **1.6. Normalizazio politikoa eta baketzea**

Euskal normalizazio politikoa lortzeko aurreko epigrafean adierazitako moduko formula moderno, zabal eta malguak, beste alde batetik, baketzeari begira birtualtasun handia gorde lezake. Ezin ahaztu daiteke elkarriketen azkenengo prozesuan buru izan zen esaldia: “bakeak ez du prezio politikorik, baina politikak gauza asko egin ditzake bakea lortzeko”. EAJ-PNVren ustez hori da bakerantz gida gaitzakeen potika modua. Politika horrek ETArri orain arte izan dituen pizgarri politikoa ez izatea eragiten du, herriari hitza emanez.

## **2. BERMEEN KULTURA ERRESPECTATZEN DUEN ESTATU EREDUA LORTZEAREN ALDE**

### **2.1. Kalitate demokratikoaren berrezarpena**

Partidu Popularraren agintaldian estatuko erakundeek bultzatutako atzerakada demokratiko larria nekez zuzendu dute azken legealdian, euskal taldeak horri lotuta behin eta berriz egindako ahaleginak gorabehera. Horregatik, beharrezkoa da askatasunen araubidea eta sistema politiko bat finkatzeko eta bermatzeko premia nabarmentzea. Sistema politiko horretan finkatutako demokrazien ezaugarri diren boterearen kontrol eta oreka mekanismoek osotasunean eta eraginkortasunez jardun behar dute.

Hona hemen, labur azalduta, salatzen den atzerapenaren adierazpen kezkarrienetako batzuk.

#### **2.1.1. Botereak banatzeko printzipioaren porrota**

Azken urteetan demokraziaren euskarria osatzen duen botereak banatzeko printzipioan haustura larriak gertatu dira.

Botere exekutiboak botere judizialari egiten dion etengabeko eta eutsi ezinezko eta ebazpenen edukietan eta prozesuetan markatutako erritmoetan irudikatzen den presioari, legealdi osoan zehar botere legegilearen eta botere judizialaren arteko harreman polemiko eta tirabira askokoa gehitzen zaio; izan ere, 2004ko martxoko hauteskundeetan sortu zen nagusitasun parlamentarioaren kontrako botere bezala jarduteko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak ezohizko gogoia erakutsi zuen. Aipatu nagusitasun hori nabari okertu zen azkenaldian, Auzitegi Gorenaren eta Eusko Legebiltzarraren artean sortutako ereduak eta atsegina ere ez den gatazka dela eta.

Botereen banaketa sistema demokratikoaren oinarrietako bat da eta banaketa horrek zehazten ditu magistratuek eta parlamentariak beren zeregin instituzionala betetzeko onartuta dituzten bermeak; ordezkarietarako oinarrizko eskubideak eta ganbaren autonomia bermatu behar da.

Aurrekoarekin lotuta, epaile eta magistratu batzuek justiziaren ideologizaziorantz daramaten bidea geldiezintzat jotzen da. Demokraziak ez du jasaten auzialdi judizial altuenen sententziak salen osaeraren arabera hartzea eta ez benetan epaitzen ari direnaren arabera.

#### **2.1.2. Salbuespenezko legeria, oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen murrizketa larria**

Terrorismoaren aurkako borrokak gobernuko gehiengo jarraientzat zurigarri bezala balio izan du finkatzen ari den eta legez kontra herritarren eskubideak eta askatasunak murrizten dituen egiazko larrialdizko legeria emateko (baimendu gabeko erreferendumaren deialdia Zigor Koderak eramateak ekarri zuen zentzugabekeria baino ez da despenalizatu).

Alderdi politikoaren Lege Organikoa, zalantzarik gabe, izaera murriztailea duten aginduen multzoa da. Agindu horiek demokratikoa izan nahi duen sistema bateko herritarren eskubideak babestu behar dituen bermeen koadroa ahultzen lagundu dute. Arau horrek askatasun ideologikoa, adierazpen askatasuna eta elkartzeko askatasuna kaltetu izan ditu eta larri kaltetzen jarraitzen du. Ukaezina da estatu demokratiko batek eskura dituen neurri guztiekin borrokatu behar duela terrorismo egintzak adierazten dituzten mehatxuen aurka; estatu demokratiko horrek Giza Eskubideen Europako Hitzarmena berrestean hartu zituen betebeharrak bete behar ditu.

Alderdien Legeak berekin dakartzan oinarrizko eskubideen porrota, udaleko desgobernu arazo batera mugatzen da gainera erakunde edo alderdi politiko bat legez kanpo uzten dutenean eta toki hauteskundeetan parte hartzen duten gainerako alderdiak ez direnean eserlekuez jabetzen edo hartu ondoren uzten dutenean; horren ondorioz hutsunea sortzen da aginpidean eta horrek gobernagarritasunari eta udalerrien kudeaketari eragiten dieten disfunczio larriak sortzen ditu. Horrek euskal taldeak berriki amaitutako legealdian zehar ezer lortu gabe eskatutako arauen berritzea eskatzen du. Indarkeria antolatuen aurkako borrokan, zuzenbide estatuaren mugen defentsak talde armatuaren lankidetzaren delituaren legezko konfigurazioa aldatzeko eskakizuna arrakastarik gabe defendatzera eraman gaitu, konstituzioaren interpretaziora eta legezketasun penalera egokitzeko proportzionaltasunaren ikuspegitik, Konstituzio Auzitegiak berak egindakoa eta gaitzespen penala jokabideen larritasunarekin lotuz. EAJ-PNVk berriz saiatuko da.

Azken legealdi horretan finkatuta eta bereziki larria da adingabeen erantzukizun penalaren erregulazioa, terrorismo delituen arloan ezartzen den erantzun penal eta penitentziarioaren tratamendu bereziari dagokionez.

Zuzenbide estatuaren terrorismo zurigarriaren peko beste porrot bat –beste delitu mota batzuetara zabaltzen dena– atxiloketaren eta espetxearen, iraupenaren, inkomunikazio araubidearen eta inkomunikazioan zehar eskubideen murrizketaren erregulazioa da. Hainbat alditan zuzenbide estatua berritzeko eskatu da, eta berriz ere eskatu behar



izango da, baita bideo bidezko atxiloketen eta galdeketen kontrolak ere atxilotuen edo presoan eskubideen bermeak defentsa arduratsua izan dezaten eta tortura kasuak saihesteko. Torturaren eta bestelako tratu edo zigor gogor, anker edo laidogarrien kontrako Hautazko Protokoloa sinatu ondoren, gobernuak bere gain hartutako eginbeharrak betetzearen jarraipena euskal taldearen zeregin berezia izan da eta izango da.

Demokraziaren birsorkuntzak espetxeratuen zaintzaren epaitegi zentralak desagertzea ekarri behar du. Jurisdikzio horrek dituen eginkizunak betetzeak (ezarritako zigorra betearaztea, errekursoak ebaztea, barruan daudenen eskubideak babestea eta espetxe araubidea betetzean sor daitezkeen gehiegikeriak zuzentzea, espetxeetara bititak egitea) epaileak Audentzia Nazionalak izapidetutako betearazpen penalak bete behar dituen presoa dagoen zentroarekin arartegabetasun lanak egitea eskatzen du.

Zigorak osorik eta eraginkortasunez betetzea, 7/2003 Lege Organikoak ezarritakoa, ez da aldatu nahiz eta orokorrean zapaltzailetzat hartu; horri lotu zaio Parot delako kasuaren interpretazio jurisdikzionala onura penitentziarioak zenbatzeko. Egia da sistema penal eta penitentziarioak eginkizun ezberdinen arteko oreka bilatu behar duela, adibidez, zigor eginkizuna, berriz gizarteratzea, prebentziorako edo biktima gogobetetzeko eginkizunak; baina hasieran edo amaieran ezin dezake jarri azentua besteak lausotuz edo deuseztuz. Gizarte bateko nagusitasun demokratikoaren mailak bere sistema penalarren leuntze mailan egoera ona du, horregatik dira hain garrantzitsuak berriz hezitzeko eta gizarteratzeko printzipio konstituzionalak. Berriz hezitzeak eta gizarteratzeak etorkizuneko legediak eta egungo sistemarekin "de facto" kanpo uzten diren legediak iradoki beharko ditu.

## **2.2. Justizia autonomia bezala zehaztutako estatura egokitzea**

Legealdi honek justizia arloan izan duen porrot handia estatu konposatu baten egiturara egokitzeko beharrezko berriztapenak onestea lortu ez izana izan da.

EAJ-PNVren ustez horrek honakoa eskatzen du:

### **2.2.1. Autonomia Erkidegoen eskumena eta organo jurisdikzionalak**

1.- Euskal antolaketa judiziala Autonomia Erkidego bakoitzean, Lurralde horietan eskumena izango duten Auzitegi Nagusietan, gorenera iristea. Horien aurrean aurrerantzeko prozesu instantziak amaituko dira, kasazio errekursoak edo jurisdikzioaren ordena guztietan egokia den azkeneko instantzia barne.

2.- Autonomia Erkidego bakoitzeko organo jurisdikzionalen eskumena ordena, instantzia eta gradu guztietara zabaldu dadila, aplikatutako zuzenbidea gorabehera, Estatu osoan Auzitegi Gorenaren salbuespen bakarra izanik.

3.- Autonomia erkidego bakoitzeko organo jurisdikzionalen eskumenari dagokionez, botere judizialaren organo gorena den aldetik, Auzitegi Gorenari egokitzea doktrina bateratzea, organo judizial desberdinen artean edo Auzitegi Gorenaren beraren jurisprudenziari dagokionez zuzenbidea modu kontraesankorrean aplikatzearen aurrean, eta autonomia erkidegoetako eta estatu gainerako organo judizialen arteko eskumen eta jurisdikzio gatazken berri izatea.

4.- Autonomia erkidegoetako organo jurisdikzionalen eskumenari dagokionez, aurreko aurreikuspenak indarreko erregulazioen arabera hartzea, oinarrizko eskubideen babesean, Konstituzio Auzitegiari eta egungo egoitza Estrasburgon duen Giza Eskubideen Europako Auzitegiari dagokien jurisdikzioaren kaltetan izan gabe.

### **2.2.2 Botere judizialaren gobernu eta justizia kontseiluak**

1.- Autonomia erkidego bakoitzeko esparruan botere judizialaren gobernuak dagokion Justizia Kontseiluaren aurrean erantzutea; Estatuko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekiko lankidetzat estuan beteko ditu bere eskumen eta eginkizunak, jurisdikzioaren batasun eta independentzia printzipioak gordetzeko. Justizia Kontseiluek beren eskumenak garatuko dituzte auzitegi-tako lehendakariak eta, beren eremu organikoari dagokionez, gainerako organo jurisdikzionalen titulartasunari dagozkien atribuzioen kaltetan izan gabe.

2.- Kontseilu Judizialek Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariak izendatzea. Kontseiluari egokitzea epaimahai eta auzitegiak ikuskatzeko eta autonomia erkidego bakoitzaren eremuan botere judizialari eragiten dieten gaien gaineko kontsultarako eta txostenak egiteko ahalmenak. Era berean, berezko lege autonomikoetan xedatutakoa aplikatu beharko du, Botere Judizialak lurraldeko idazkari, epaile, magistratu eta fiskalen hautaketa, hornidura, karrera, prestakuntza, diziplina araubide eta ordainsariei dagokienez ezarritako funtsezko irizpideen arabera, ondorio horietarako berezko zuzenbidearen eta gaztelaniaz bestelako hizkuntza ofizialen ezagutzak lehentasuna duela kontuan hartuta.

3.- Kontseilu Judizialak dagokien Justizia Auzitegi Goreneko lehendakariak –hori izango da buru– eta Legebiltzarrak berak lege bidez araututako osaera eta estatutu juridikoa duen kide multzoak osatuko dituzte, beren gaitasuna, eta

kide batzuk beren eginkizunak autonomia erkidego horretan bertan betetzen dituzten epaile eta magistratuen artean hautatzea bermatzeko irizpide mistoa kontuan hartuta.

### **2.2.3. Zerga Ministerioa**

EAJ-PNVren ustez, aztertutako ikuspegitik aurrerapenen bat badakarren arren, ez da nahikoa estatutu organikoan egindako aldaketa. Hau defendatzen dugu:

1.- Zerga Ministerioaren antolaketa eta funtzionamendua autonomia erkidegoen esparruan berezko legearen bidez arautzea; horrek legalitatearen defentsa emango dio bere osotasunean, ordenamendu juridikoak jurisdikzioko agindu guztietan ematen dizkion ekintzak gauzatu.

2.- Justizia Auzitegi Goren bakoitzeko fiskal gorena dagokion Justizia Kontseiluak izendatzea, eta zuzeneko burutza egingo du fiskaltzen gainean eta erkidego bakoitzeko antolaketan. Halaber, horri dagokio fiskalen izendapen eta karrera proposamena, Justizia Kontseiluak izendatzeko, karguaren berezko gainerako ahalmenez gain.

### **2.2.4. Justizia administrazioa**

1.- Autonomia Erkidego bakoitzak bere lurraldean ordenamendu juridikoak Justizia Administrazioari dagokionez zehazten dituen ahalmen betearazle eta organiko guztiak baliatzea, estatuko printzipio eta prozesu lege berberak aplikatuz, hiritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren defentsa bermatze aldera.

2.- Autonomia erkidego bakoitzean justizia doakoa izatea, legean ezarri bezala eta, nolana ere, baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela egiaztatzen dutenentzat. Hartara, bermatuta izango dute legearen arabera hala behar den prozesu guztietan defentsa profesional eta independenterako eskubidea.

3.- Lege autonomikoen bidez euskal hiritarrek epaimahaiaren erakundearen bidez Justizia Administrazioan parte hartzeko araubidea garatu ahal izatea.

4.- Onartu duten autonomia erkidegoek eskumen eskusiboa izatea instalazio judizialei, lurralde mugaketei eta beren hiriburutza finkatzeari dagokienez, eta, horretarako, epaimahai eta atal berriak sortzeko eta organo judizial guztiak beharrezkoak diren baliabide material, organiko eta pertsonalez hornitzeko ahalmena izatea.

5.- Lege autonomikoak erkidego bakoitzeko Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten langileen artean funtzionarioen kidegoak sortzea eta dagokien estatutu juridikoa eta beren zerbitzu harremanaren araubidea ezartzea.

6.- Horrez gain, gobernu autonomikoen eta Justizia Ministerioaren artean behar den kooperazio esparrua ezartzea, autonomia erkidegoetan Justizia Administrazioa behar bezala kudeatzeko eta Espainiako eta Europako esparruekin koordinatzeko.

### **2.2.5. Polizia judiziala**

Polizia autonomiko integralak polizia judiziala izango dira, ondorio guztietarako, dagokien autonomia erkidegoaren eremuan. Polizia judizial gisa jardutean botere judizialaren zerbitzura egongo dira, prozesu legeek xedatu bezala.

## **3. ESTATU EREDUAREN EGITURA BERRITZEAREN ALDE**

### **3.1. Autonomien estatua krisian**

Eusko Alderdi Jeltzalea ziur dago autonomien estatua deiturikoa Gernikako Autonomia Estatutua onartu zenean sortutako espektatibei erantzuten ez dien sistema dela egun.

Horregatik, beharrezkoa da estatuarekin beste hitzarmen bat egitea, euskal herritarren borondatea, demokratikoki adierazitakoa, haren jarraibideak ezartzeko orduan funtsezkoa dela onartuta.

Ezin da onartu estatuaren pisu demografikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria txikiagoari dagokionez, euskal gizartearen gehiengoaren adierazpena blokeatzeko tresna gisa erabiltzea, gutxieneko elkarriketa ere ukatuta. Erakundeek hitzarmenen bila eta herritarren borondateak adierazitako ildoan mugitu behar dute.

Egia da estatutuak gure autogobernua aurrera egiteko balio izan duela. Baina ez da batere egokia gaur egun oraindik estatutuak 38 transferentzia egin gabe izatea. Botere publikoen jarduketaren oso esparru garrantzitsuei eragiten dieten

eta ganberako talde guztiek Eusko Legebiltzarrean hitzartu zituzten transferentziak. Gainera, gertaerek erakusten dute Zapateroren gobernuaren erabat zikoitza izan dela estatutuaren garapenarekin: ez da transferentzia bakar bat ere egin Rodríguez Zapatero jaunak Espainiako gobernuaren presidentea kargua hartu zuenez gozotik.

Eta hori Gorte Nagusietan EAJ-PNVren ordezkariak eta euskal administrazioak berak esparru zehatzetan eskumenen transferentzia negoziatzeko ahaleginak egin dituzten arren. PSOEren gobernuaren erantzuna transferentzia hori ukatzea izan da, hain zuzen ere estatutuak eskumena jasotzen zuela onartu arren, egokitasun politikoarengatik. Hala gertatu zen, adibidez, espetxeetako eskumenekin, erkidego barneko trenbide eskumenen transferentziarekin edo udal hauteskunde eremuarekin. EAJ-PNVk ezin du onartu euskal herritarrek berretsitako eta lege diren akordioak garrantzirik gabe geratzea alderdi politiko bati hala komeni zaiolako edo alderdi politiko batek hala erabaki duelako.

Egoera horren aurrean, EAJ-PNV estatuarekin akordio batera iristen saiatuko da, euskal nazioaren eta Espainiaren arteko harreman berri baterako oinarriak ezartzeko. Baina, akordio hori lortzen ez den bitartean, EAJ-PNVk Gernikako Estatututik ia 30 urte igaro ondoren oraindik transferitu gabeko eskumenak eskatzen jarraituko du. Horregatik hartzen da lehentasunezkoztat erakundearen arteko harreman normalizatuan zenbait transferentzia egitea, bi administrazioen hartu-emana, elkarriketa instituzionala, erregularra eta ohikoa dela. Zentzu horretan, Euskal Taldeak bereziki honako hauek eskatuko dizkio Espainiako gobernuari:

1. Espetxeen transferentzia, Justizia Administrazio eraginkor eta demokratikoa lortzeko.
2. Euskadin enplegua sustatzeko xedez, enplegu politika aktiboen transferentzia, Kontzertu Ekonomikoaren sistemari egokitutako finantziario irizpideekin, eta etengabeko prestakuntza garatzeko esparru autonomoa lortzeko konpromisoa berrituta.
3. Lan ikuskaritzaren eta gizarte segurantzaren transferentzia, Euskal Autonomia Erkidegoko eskumenen esparruan lan ikuskaritza alorreko araudiaren garapena eta benetako aplikazioa sustatzeko.
4. Gizarte babeseko politikaren esparruan, Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoaren transferentzia, oinarriko eta funtsezko zutabe gisa pentsio sistema publikoa mantentzearen alde egiteko.
5. Azpiegiturak hobetzeko esparruan, interes orokorreko portuen kudeaketaren transferentzia.

### **3.2. Gure eskumenen defentsa. Galeuscat-en zeregina**

Euskal Taldearen egitekoa ez da soilik estatutu eskumenak erreklamatzean zentratu behar, baizik eta, Zapateroren gobernuak erakutsitako dinamikaren aurrean, baita gure eskumenen defentsan ere Gorteetan legeriak egindako urratzeen aurrean. Hain zuzen ere, amaitu den legegaldia erakutsi du gobernu sozialistak, politika sektorial batzuk aurrera ateratzeko asmoz, ez diela Konstituzioak berak eta jurisprudentziak ezartzen dituzten eskumen mugei erreparatu nahi izan. Hala, etxebizitza edo gizarte politikak bezalako esparru autonomiko eskusiboetan legeak egiten jardun da, eskumen autonomikoak hartzen zituen ala ez kontuan hartu gabe. Oro har, ordenamendu juridikoarekiko errespetua eska daitekeen arren, zalantzarik gabe, estatuko administrazioak izan behar luke hori errespetatzen lehena. Alde horretatik, EAJ-PNVk Gorte Nagusietan duen ordezkariaren lehentasuna gobernuak gure autogobernu eskumen gehiegikeria posibleetatik defendatzeko xedez aurkeztutako araudia zorrozki kontrolatzea izango da. Hori izango da CIUko, BNGko eta PNVko parlamentariak osatutako Galeuscat izeneko aliantzaren jarduketako esparru nagusietako bat: alderdi horiek araudi horrek irudikatzen duenaren gainean orientatzeko txostenak egitea eta, hortaz, gure nazioen autogobernuari egiten zaizkion erasoei erantzuten dien bloke bateratu gisa jardutea.

Bestalde, bistakoa da Gorteetan onartutako azken estatutuek elementu berriak sartu dituztela eta estatuak arauz eta transferentziaz erantzun behar diela baldin eta testu berriak eraginkorrak izango badira. Estatuko erakundeek legeriaren aldaketan aktiboki esku hartu ezean, estatutu horiek hein handi batean paper bustia besterik ez dira izango. Horrenbestez, beharrezkoa da ordenamendu juridikoa berregokitzea eta arau esparrua estatutuetako lege organiko berrietara moldatzea. Hona hemen orientatzeko jarraibide batzuk:

1.- Erreformatu berri diren estatutu askok eskumenen tipologia esplizituki azaltzeari ematen die garrantzia. Izan ere, urteen joanak erakunde bakoitzaren eskumen mugak ikusezin egin ditu estatuaren alde. Alde horretatik, estatutu berriek esplizituki adierazten dute sistema autonomikoaren hasieren izaera berekoa zen zerbait, hau da, eskumen autonomiko eskusiboen existentzia; teorikoki, estatu arauak ezin izango lukete horretan sartu. Kataluniako estatutuaren testua inauguratu zuen "eskumenen blindajea" deiturikoa da. Egia esan, estatutu horiek onartu ondoren, estatuak legeak egiten jarraitu du aipaturiko aurreikuspen hori indarrean sartu izan ez balitz bezalaxe.

2.- Gainera, bertan adierazten duenez, partekatutako eskumenen esparruan, horien legeria, garapena eta betearazpena dagokion autonomia erkidegoak egingo ditu Estatuak lege izaera duten arauetan printzipio edo gutxienezko arau komun gisa

ezartzen dituen oinarrien esparruan. Oinarrien printzipio nozioan datza. Hau da, estatuak partekatutako gaietako oinarri generikoak baino ez ditu arautu behar, ez du horien zehaztapenetan sartu eta autonomia erkidegoek erabakitzeko duten esparrua baldintzatu behar. Ezin da onartu autonomia erkidegoei emandako eskumenak estatutarentzat berreskuratzeko nahia azalduz esparru politiko batzuek eginiko iragarpena; hori gertatzen ari da dagoeneko arlo batzuetan.

3.- Bestalde, estatutu tipologia berriak ekarritako beste berritasun batek indartu egiten du euskal administrazioak beti defendatu izan duen ideia hau: lurralde kontzeptua autonomia erkidegoei emandako ahalmenak aplikatzeko eremu gisa ulertu behar da. Hartara, adibidez, autonomia erkidegoen jarduteko gaitasuna itsaso eremuetara zabalduko da.

4.- Azkenik, aurrez aipaturiko estatutu aldaketak kontuan hartuta, nazioetako erakunde autonomikoen parte-hartzea erraztu behar da estatu mailako organo instituzionalak kideak –Konstituzio Auzitegia edo Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, kasu– izendatzerakoan. Zentzu horretan, erakunde horiek arautzen dituzten estatuko legeak ezarri behar dira kideak izendatzerakoan parte-hartze autonomikorako bidea zehazteko, estatutu aurreikuspenei baliozkotasuna eman nahi bazaie behintzat.

### 3.3. Konstituzio Auzitegiaren kasua

Konstituzio Auzitegiaren kasu zehatzean, Euskal Autonomia Erkidegorako beste sala berezi bat sortzearen alde egiten dugu. Euskadiren eta Espainiaren arteko gatazketarako Auzitegian eratuko litzateke, eta EAEko erakunde eta botereei dagokienez sor daitezkeen gatazka konstituzionalen eta inkonstituzionaltasuna deklaratzeko prozeduren berri izango luke. Konstituzio Auzitegiak izendatutako hiru magistratuk eta Eusko Legebiltzarrak izendatutako beste hiruk, hau da, guztira sei magistratuk osatuko lukete.

Egungo hauteskunde sistema ez da batere egokia; Konstituzionaleko magistratuak estatuko bi alderdi handik soilik izendatzen dituzte beren gehiengoekin kontrolatzen dituzten erakundeen, Gorteen, Espainiako Gobernuaren eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren bidez. Azken urteetan magistratu “kontserbadore” eta “aurrerakoen” bi bloke mugiezinek eskaintako ikuskizunak ezer gutxi esaten du alderdi guztien independentzia judizialaren alde.

Bestalde, beharrezkoa da Espainiako gobernuaren eta autonomiako gobernuaren jarrera instituzionalak berdintzea, Espainiako gobernuak errekurtsioa aurkeztutakoan autonomia erkidegoetako lege izaerako arauak automatikoki ez eteteko, autonomiako gobernuak estatuko legeren bat errekurritzen duenean gertatzen den eran. Interpretazio horrek Konstituzioaren eduki zehatzera itzuli beharra dakar, Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoaren egungo testuaren onarpenarekin bortxatu zen hartara.

Premiazkoa da auzitegiaren barruan estatuaren ekintzarik ezaren bidez autonomiako eskumenak erabiltzea eragozteko saihesteko ekintzak gauzatu ahal izateko prozedurak garatzea, eskumenen gatazka negatibo deiturikoan estatua eta autonomia erkidegoak berdinduz.

Garrantzitsua da, bestalde, Konstituzio Auzitegira errekurritzeko legitimatutako subjektuak zabaltzea, autonomia erkidego bati dagozkion senatari autonomiko gehienak beren lurraldeei eragiten dieten inkonstituzionaltasun errekurtsioak aurkezteko gaituta egon daitezen, adibidez.

### 3.4. Senatua

Aurrekoa Goi Ganberaren gaitasunen berrikuspenean barneratu beharko litzatekeen neurrietako bat da. Bistakoa da oraingoz Senatuak ez duela behar bezala erakusten Espainiako lurralde dibertsitatea. Zehazki, ez da lurralde ordezkarietako ganbera bat. Hortaz, hori erreformatzeko neurri batzuk hartu beharko dira. Besteak beste, kontuan hartu beharko litzateke nazio berezitasuna duen autonomia erkidego jakin bateko gehiengo kualifikatua ordezkatzeko duten senatarien beto eskubidea.

Halaber, bistakoa da Senatuak bere funtzionamenduan eta osaeran birdoitze batzuen beharra duela lurralde ganbera bihurtzeko. Nolanahi ere, adierazi behar da nazio berezitasunak dituzten erkidegoen ordezkariak eta egitekoa nabarmentzen dituen erreforma batek benetako zentzua izango duela. Hala ez bada, Senatuaren eginkizunak eta horren existentziak berak zentzurik gabe jarraituko du.

### 3.5. Europa

Baina euskal ordezkariak Estatua baino eremua zabalagoetara iritsi behar du. Hain zuzen ere, European integratzeko prozesuak aldatu egin du Espainiako eskumenen banaketa sistema, eta gaur egun, arlo askotan, autonomia eremuari

eragiten dioten erabaki asko Bruselan hartzen dira. Horretarako, gure nazioak ordezkari zuzena izan behar du Europako erakundeetan, eta estatuko ordenamendu juridikoan mekanismo egokiak hartu behar dira hori bete ahal izateko.

Horrez gain, beste herrialde batzuek hasitako erduei jarraituz, funtsezkotzat jotzen dugu Eusko Legebiltzarrak Europako araudia onartzeko prozesuan parte hartzea arautu beharreko gaiak bere eskumen batean eragina duenean.

Bestalde, funtsezkoa da Europako Parlamenturako hauteskundeetarako Espainian ezarritako hauteskunde eredia erreformatzea, Europako estatu gehienetako parametroei jarraiki, hauteskunde barruti bat baino gehiago egon daitezen, Espainiako identitate pluralismoari erantzuteko. EAeko, Kataluniako edo Galiziako barrutiek, Europako Parlamentura mugatuta, Espainiako dibertsitate politikoa hobeto islatzen lagunduko dute.

Bestalde, erabat beharrezkoa da Ertzaintza, polizia integrala den aldetik, Schengengo esparru izenekoan sartzea, bere egitekoak Europako gainerako polizien egoera berean gauzatu ahal izan ditzan. Horrek tresnak emango lizkioke delinkuentziaren aurkako borrokaren eraginkortasuna handitzeko. Ez da batere egokia estatuko eremuetatik bere egitekoa kritikatzeko, beste segurtasun kidego batzuek dituzten baliabideak eragozten zaizkionean.

### **3.6. Presako premia. Kontzertu Ekonomikoa defendatzea**

Bistakoa da eskumen batzuen erabileraren errealitatea finantziario egokiaren gainean oinarritu behar dela. Hori gabe ez dago benetako autogobernuri. Euskal Taldeak gure foruen ezaugarri bereizle bat defendatzeari emango dio lehentasuna hurrengo legegaldian: Kontzertu Ekonomikoa defendatzeari, alegia. Eta are gogo handiagoz, erasotua izaten ari den garai honetan. Kontzertuak etengabeko erasoak jasan ditu hainbat urtez, funtsean inguruko autonomia erkidegoetako erakundeetako arduradunen aldetik, eta horiek, jakina denez, PSOEko edo PPko alderdikeria nabarmeneko arduradun politikoez zuzentzen dituzte. Estrategia honen emaitzek zalantzan jarri dute zergak arautzeko gaitasuna bera, Estatuko eta Europar Batasuneko erakundeetako instantzia judizial gorenaren erabakien bidez, datorren 2007-2011 legegaldian Kontzertu Ekonomikoa sendotu behar du zerga araubide foralaren kotsakrazioa, gaitasun berberak dituen beste edozeinen pare, ziurtatuko duen behin betiko "blindajearen" bidez.

Ahalik eta ondoen defendatzeko, ondorengo terminoekin identifika genitzakeen hainbat arlotako jarduketa eta erabakiak behar dira: integrazioa (Europar), babesa (espainiar estatuko barne erasoaren aurrean) eta sustapena (gure muga barruan eta kanpoan).

Europa komunitarioan dauden beste zerga sistema bat bezala onartua izan behar du Kontzertu Ekonomikoa, bere babesean hartutako erabakiak Batasuneko beste herrialdeetan indarrean dagoen beste edozein sistemarekiko tratu berdintasunez aztertu eta epaituko direla ziurtatzeko. Ez da kasualitatea eraso handienek eta erabaki polemikoenek gure autogobernurako tresna bereziena Europaren eraikuntzarekin bateragarri ez izatea argudiatu izana. Zorionez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegia Azores kasuan emandako epaiak zalantzan jarri du Batzordearen iritzia eta onartu du, baldintza jakin batzuetan, dagokion eskualdeko erakundeak erabakiak hartzeko behar adinako autonomia duenean, litekeena da emandako arauak aipaturiko selektibitatea ez urratzea.

Datozen urteetan ikusiko dugu nola Azores kasuan finkatutako doktrina interpretatzeko moduak eta hartzen diren erabakiek –horretarako, auzitegi komunitarioetan epaiketa aurreko arazo bat aurkeztu da dagoeneko– behin betiko erabakiko dute Kontzertu araubidea araudi komunitarioarekin bateragarria dela ala, alderantziz, gure erakundeek, minimoki bada ere, Estatuko administrazioak hartutako erabakietatik bereizteko duten gaitasuna lurperatuko dute. Horregatik, ezinbestekoa izango da adierazitako interpretazioa gure araubide juridikora egokitzen dela ziurtatzeko egin daitezkeen jarduera guztiak gauzatzeko. Horretarako, ziur aski, erabakitasunez eta sistematikoki jardun beharko da xede horretarako lagungarri diren erakunde eta gizarte esparru guztietan, betiere, Europako erakundeetatik datozen harmonizazio ekimenen jarraipen egitekoetan zentratutako beharrezko ahalegina ahaztu gabe, zerga alorra arautzeko dugun gaitasunaren garapen egoki eta baketsuena ziurtatze aldera.

Zerga arloko gure espezifikotasunen onarpen "judizialarentzako" osagarri egokia da horien onarpen "politiko-instituzionala" eta Europako Itunean barneratzea, baita euskal administrazioek berariaz zerga alorrean hartzen diren eskumenekin zerikusia duten gaiak planteatzen eta eztabaidatzen diren foroetan parte hartzea ziurtatzeko mekanismoak ezartzea ere.

Lehenengoa Espainiako agintaritzek Lisboako Itunari erantsitako deklarazio bat, erakunde komunitarioek euskal fiskalitatea errespetatu behar izateari buruzkoa, onartzeko konpromisoa hartetik ondorioztatuko litzateke, erakundeen eta estatukideen arteko harremanak arautzen dituen erakundeen autonomia printzipioa betetz, Eusko Jaurlaritzak berak 2007ko azaroaren 27an egindako Gobernu Kontseiluan eskatu bezalaxe.

Bigarrena Estatuko agintaritzen borondate politikoaren baitakoa da. Izan ere, Europako legerian ez dago eskatutako parte-hartzea eragozten duen ezer.



Baina, Europako egoera zerga sistema gisa dugun existentziaren gako bihurtu bada, barne eremuan, gure Batzar Nagusiek emandako xedapenetatik predikatzen den araudia, auzitegi arrunten aurreko inpugnazio erregimen korrelatiboarekin, gure araubidearen benetako "Akilesen orpo" gisa agertu da. Hala, inguruko autonomia erkidegoetako administrazioek xaxatuta, enpresa eta sindikatu erakundeak nola gure enpresen fiskalitateari buruz hartu diren erabakiak administrazio gaietarako auzitegietan inpugnatzen jardun diren ikusi (eta jasan) dugu, dakigun bezala, segurtasun juridikorako txarrak diren emaitzekin. Foru arauak ikuspegi formaletik duten araudi izaeraren eta beren eduki materialaren –azken hau lege baliabideetarako gorde ohi da– artean dagoen kontraesana lehenbailehen konpondu behar da. Helburua ez da Foru Arauen zigorgabetasuna aldarrikatzea edo Foru Arauak jurisdikzio arruntaren erabaki judizialeatik babestea haiek okerragoak edo gure segurtasunerako arriskutsuagoak iruditzen zaizkigulako, baizik eta eduki material horri egokitutako inpugnazio araubidea ziurtatzea, bere alde on eta txarrekin, estatuko edo autonomia erkidegoetako xedapen homologoei erreserbatutako konstituzionaltasunaren kontrolari dagokiona.

Baina, horrez gain, ziur gaude integrazio eta babes jarduketa hauek ez dutela ezertarako balio izango baldin eta horiek aztertzeraz hurbiltzen direnei, premiaz edo bokazioz, ematen dituen aukeren eta gaitasunen benetako izaeraren ahalik eta ikuspegi hurbilekoena eskaintzeko gai ez bagara. Ezin diegu Kontzertuaren araubidea aztertu behar duten arduradun komunitarioei edo hartara hurbiltzen diren ikertzaile edo espezialistei haren izaeraren, historiaren eta errealtatearen ideal bete egin dezaten eskatu prozesu horren aurrean jarrera pasiboa hartuta. Gure ustez ezinbestekoa da Kontzertu Ekonomikoaren gaineko eta inguruko ezagutza oinarri sendoa baldin eta hura mantendu eta foro batzuetan pribilegiotzat, gehiegikeriatzat edota, beste batzuetan, zaharreria juridikotzat jotzen duten erasoen aurrean defendatu nahi badugu. Defentsarako joera mantentzeaz gain, jarrera dibulgatzailearekin osatu behar da. Zenbat eta hobeto ezagutu, orduan eta berme handiagoa izango dugu manipulatu edo gaizki interpreta ez dadin.

Akordioekiko errespetua, gure araudia blindatzea, foro komunitarioetan parte hartzea gure interesak defendatze aldera, alde biko berme sistema bat ezartzea eta hori dibulgatu eta defendatzeko jarrera aktiboa izatea; XXI. mende honetan, zutabe horietan oinarritu behar da Kontzertu Ekonomikoa, zerga arloan erabakitze dugu gaitasuna.

## **4. PRODUKTIBITATEA ETA ENPLEGU BETEA LORTZEKO AHALEGIN GUZTIAK EGINGO DITUEN POLITIKA EKONOMIKO BATEN ALDE**

### **4.1. Ekonomia-egoeraren diagnostikoa**

Azken urteetan, Espainiako ekonomiak urteko %4 inguruko hazkunde-tasak izan ditu. 2007an ere %3,5etik gora hazi da. Hazkunde horri esker, enplegua sortu ahal izan da, 3 milioi lanpostu garbi inguru joan den legegintzaldian. Ondorioz, langabezia-tasa biztanleria aktiboaren %8 inguruan jarri da.

Hazkunde-erritmoari eta enplegu-hazkunderari esker, immigrazioaren bidez etorritako laneskua ere xurgatu ahal izan da.

Ekonomia-dinamismo hori, funtsean, barruko eskaririk etorri da. Kontsumoak eta, bereziki, inbertsioak (%10etik gorako tasak izan ditu), soberan konpentsatu dute kanpo-sektoreak izan duen portaera txarra.

Horrekin batera, defizit publikoari eusteko politikari esker, diru-sarrera publikoen hazkunde nabarmenak eta gizarte-kotizazioen igoerak lagunduta, azken ekitaldietan sektore publikoko kontuek superabit handia izan dute. 2007an, superabit hori BPGren %2 ingurukoa izan da.

Hala ere, joan zen udazkenetik aurrera, nazioarteko ekonomia-egoerak aldaketa gogorra izan zuen, eta oso zaila da aldaketa horren azken ondorioak aurrez ikustea eta ebaluatzea.

Alarma seinaleak Amerikako Estatu Batuetako ekonomiatik zetozen. Izan ere, munduko lehenengo ekonomia motelaldian eta baita atzeraldian ere sartzeko arrisku argia zegoen, eta horrek, seguruenik, ondorio kaltegarriak izango zituen nazioarteko ekonomian.

*Subprime* izeneko zabor-hipoteken arriskua okerragotzeak, zenbait aktiboren kalitatearen gaineko zalantzek eta likidezia-hornitzaileak diren bitartekari globalen jarduera gelditzeak likidezia-shocka sortu zuten eta, ondorioz, banku-arte tasak handitu egin ziren, bai eta bankuek arriskuarekiko zuten abertsioa ere. AEBetako Erreserba Federalak,

Europako Banku Zentralak eta beste banku zentral batzuek batera esku hartu zuten likidezia sartuz, baina horrek ere ez zuen lortu arazoa gelditu edo leuntzea.

Hipoteka-jatorria duen arazoa denez, eragina handiagoa izango da Ameriketako Estatu Batuak edo Espainia bezalako herrialdeetan, azken urteetan higiezinaren sektorea asko hazi baita herrialde horietan. Horrek kaltetu egingo ditu eraikuntza-sektorea eta sektore horretako enplegua eta, ondorioz, etxebizitzaren prezioa jaitsi egingo da.

Horrez gain, arrisku geopolitikoak garrantzia hartu du, berriz ere. Petrolio gordinaren upelaren prezioa 100 dolar inguruan egoteak, lehengaien prezioen igoerak, eta dolarrak balioa galtzeak edo, berdina dena, euroak balioa irabazteak zaildu egiten dute ekonomia suspertzea.

Ekonomiaren hazkundera arriskuan jartzen duten elementu exogeno horiez gain, horiek bezain larriak diren eta Espainiako ekonomia ezaugarritzen duten beste elementu batzuk ere badaude. Euren artean oso lotuta dauden hiru elementu nabarmendu behar dira:

- Inflazio-tasa handia. Kontsumoko prezioek %4,2 egin zuten gora iaz, eta Europar Batasuneko eta Euroguneko herrialdeekiko zegoen prezio-diferentziala zenbait hamarren hazi zen, portzentaje-puntu bateraino iritsiz. Horrek eragin kaltegarria dauka erosteko ahalmenean, lehiakortasunean eta kontu publikoetan, besteak beste, pentsioak berrikusi behar direlako.

- Industriaren eta, oro har, ekonomiaren produktibitate baxua; horren arrazoiak hainbat faktore dira: ez da teknologia berri nahikorik sartu produktu eta prozesuetan, hezkuntza-sistema gutxi egokitu da – bereziki unibertsitate-sistema eta bere lanbide-heziketako sistema -, eta hainbat arlotako araudia ez da egokitu gero eta irekiagoa eta globalizatuagoa den gizarte baten egungo eta etorkizuneko eskaeretara; horiez gain, beste hauek ere aipatu behar dira: kanpoarekiko energia-mendekotasun handiegi eta arriskutsua, hainbat arlotan pilatutako azpiegitura-atzerapena (garraioan, batez ere), ia burutu ez den gastu publikoaren erreforma, eta abar.

- Eta, hirugarrenik, neurri handian aurreko puntuaren ondorio bezala, ekoizpen-sare hori, ekonomia eta, oro har, gizartea nahikoa ez nazioartekotzea; gaur egun ere, oraindik gehiegizko beldurra daukate eta defentsiban ari dira, zabaltze-prozesurantz eta elkarrekiko mendekotasunerantz gelditu ezinik aurrera doan mundu baten aurrean.

Europar Batasuneko eremuan, Espainiako ekonomiak merkatu-kuota galdu du zuzeneko lehiakideen aurrean eta, horrez gain, berebiziko kanpo-defizita dauka. Lehiakortasun-galera adierazten duten sintoma argiak dira horiek, eta lehiakortasun-galera horrek etorkizuneko ekonomia-hazkundera oztopa dezake.

Analista gehienek arabera, datorren urtean, Espainiako ekonomia %2,8 inguru haziko da kasurik onenean, kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren hazkundera murriztearen ondorioz.

Horrela, bada, *eraikuntza-sektorean lanpostuak suntsituz hasiko da legegintzaldi berria*, eraikuntza berriak sortzeko erritmoa txikitu egin delako. Horrez gain, *kezka eta ziurgabetasuna nabariak izango dira*, gaur egun, oraindik ere, enplegu globalak gora egitea eta langabezia-tasari egungo mailan eustea aurrez ikusten bada ere.

## 4.2. Ekonomia-politikaren gakoak

EAJ-PNVren iritziz, ekonomia-politikako hiru estrategia bultzatu behar dira, epe ertain eta luzean ekonomia-hazkundera iraukorra lortzeko; hori da, hain zuzen ere, ekonomia-politikaren oinarritzko helburua.

Lehenengo eta behin, makroekonomia- eta aurrekontu-egonkortasuneko estrategia bultzatuko dugu. Bigarrenik, produktibitateari eta lehiakortasunari eman behar zaien bultzadaren alde egingo dugu. Hirugarrenik, egiteko dagoen administrazioaren eta gastu publikoaren erreforma burutzeko aldarrikatu eta exijituko dugu. Gai horri programa honen beste atal batean heldu diogu.

### 4.2.1. Makroekonomia- eta aurrekontu-egonkortasuna

Makroekonomia- eta aurrekontu-egonkortasunik gabe ezin da enplegua sortuko duen hazkundera iraukorrik lortu.

Diru-politikaren eta kanbio-tasaren kontrolik gabe, aurrekontu-politika da ekonomia-politikako oinarritzko makroekonomia-tresna.

Aurrekontu-egonkortasunak, funtsean, aurrekontu-defizitiek ez egotea eta zor publikoa kontrolatzea esan nahi du.

Ondorioz, aurretiaz zehaztu behar dira irizpideak, suberabit/defizitaren bidearekin eta zor publikoarekin lotuta.

Horrela, bada, aurrekontu-egoerek, batetik, erakundeek hartutako konpromisoak aintzat hartu behar dituzte eta, bestetik, zorpetzearen baliabidea inbertsioak finantzatzera bideratu behar dute.

Zikloan, aurrekontu-oreka sustatu behar da, horrek beharrezko baldintza izan behar duelako enplegua sortuko duen hazkunde iraunkorra bermatzeko. Hori eskatzen dute, gainera, Europar Batasuneko Egonkortasun Legeek eta Egonkortasun eta Hazkunde Itunak.

Aurrekontu-defizita saihestu behar da, ekonomia %2tik gora hazten den bitartean.

Gastu publikoko politikek eta planteak daitezkeen zerga-erreformek erreferentziazko marko hori errespetatu beharko lukete.

Beraz, EAJ-PNVtik honako puntu hauek bideratutako zerga-politika defendatuko dugu:

- Gastu arrunta kontrolatzea.
- Inbertsio publiko produktiboa handitzea.
- Estrategia-proiektuak finantzatzea ahalbidetuko duen eta herritar guztien gizarte-kohesioa bermatuko duen zerga-politika.

#### **4.2.2. Produktibitatea eta lehiakortasuna bultzatzea**

Txanpon beraren bi aldeak dira, eta, zalantzarik gabe, bi alde horiek zehaztuko dute ekonomiaren etorkizuna. Produktibitatearen hazkundera garrantzitsua eta jarraitua ez bada, ezinezkoa da ekonomia osoaren hazkunde iraunkorrik lortzea.

Kanpo-defizita markak hausten ari da eta Europar Batasunarekiko prezioen diferentziala iraunkorra da. Bi faktore horiek argi erakusten dute Espainiako ekonomiaren lehiakortasuna baxua dela.

Azken 10 urteetan, produktibitateari dagokionez, Espainiako ekonomiak atzera egin du Europako esparruan. EB-25=100 dela hartzen badugu, Espainiako ekonomiak 1996an 102,2ko indizea zeukan eta, 2006an, berriz, 97koa.

Kostuekin lotuta enpresa askok eduki ahal izan zituzten abantailak, apurka-apurka, desagertzen ari dira, eta abantaila horiek Europar Batasunaren hedapeneko estatu kide berrietarantz doaz. Ondorioz, gero eta zailagoa da lehiakortasun-mailari eustea.

Egoera berri horretan, berrikuntzari eta Europako merkatura eta globalizaziora egokitzeari esker bakarrik egin daiteke aurrera lehiakortasunaren borrokan.

Asko dira produktibitatearekin eta lehiakortasunarekin oso lotuta dauden faktoreak. Arrazoi beragatik, eremu askotan zehaztu eta burutu behar dira helburu horietara bideratutako politikak.

Hemen, hiru nabarmendu eta garatu ditugu: Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza; bizitza osoko Hezkuntza eta Prestakuntza; eta mota guztietako azpiegituren zuzkidura eta, zehazki, garraio-azpiegituren zuzkidura.

Horiez gain, gutxienez beste hiru ere nabarmendu behar dira, duten garrantziarengatik: energia-gaiari buruzko politika; eta Administrazioa noranzko horretan agente proaktibo egitea jasotzen duen politika. Azken bi gai horiek zehatzago aipatu ditugu programa honen beste atal batzuetan.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, kapitulu honetan argi utzi behar da, baita ere, Kontzertu Ekonomikoaren gaiak daukan garrantzia. Izan ere, Kontzertu Ekonomikoak garrantzi handia dauka EAEn garapen ekonomikoan eta beste arlo batzuetan, bere Administrazioak duen finantzaketa-sistema berezi bezala. Kontzertu Ekonomikoaren gaia ere gehiago azaldu eta zehaztu dugu programako beste atal batean.

Lehen aipatutako hiru ildo politikoei dagokienez, EAJ-PNVtik honako hauek sustatzera bideratutako politikak bultzatuko ditugu:

##### **4.2.2.1. Ahalegin publiko eta pribatua I+Dn eta berrikuntzan**

Orain arte, ikerketan eta garapenean eginiko ahalegin publiko eta pribatua ez da nahikoa izan, ezta gutxiagorik ere, arlo horretan aurre-aurrean dauden herrialdeekin alderatuta. Hori ere Lisboako Estrategiaren porrot argia izan da. BPGren bidez neurtutako aurrerapena oso txikia izan da; oraindik ere, Espainiako ekonomia 1,5etik behera dago, ahalegin handia egin arren.

Beharrezkoa da Ikerketan, Garapenean eta Berrikuntzan eginiko inbertsio publiko eta pribatuaren aldeko apustu sendoa egiten jarraitzea. Bai enpresa-arloan, bai erakunde zientifiko, ikertzaile eta berritzaile guztietan. Helburuak ez du izan

behar arlo horretan European dauden batez bestekoetara hurbiltzea eta/edo iristea. Benetako helburuak hau izan behar du: ahalik eta gehien hurbiltzea Europako herrialderik berritzaileenek dituzten inbertsio- eta bikaintasun-mailetara.

Legegintzaldiaren amaieran BPGren %2ra iristeak helburu zuzurra izan beharko zuen.

Arreta jartzen eta ahalegin berezia egiten jarraitu behar dugu Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia arlo guztietan barneratzeko: hezkuntzan, enpresa-arloan, ekonomian, gizartean eta administrazioan.

Berrikuntza, edonola ere, I+Gn eginiko ahalegina baino kontzeptu zabalagoa da, eta ez da jarduera zientifiko eta teknologikoetara mugatzen. Jarduera-mota guztiak hartzen ditu (antolakuntza, diseinua, marketina, eta abar), giza jardueraren arlo guztiak, eta ekoizpen-prozesua eta produktua bera hobetzeko hartutako erabaki guztiak.

Horregatik eta horretarako, beharrezkoa da kultura eta konpromisoa noranzko horretan zabaltzen jarraitzea ekonomia-, enpresa- eta gizarte-arloan, jarduera-eremua eta garatutako jarduera antolatuaren neurria edozein izanda ere. Produktibitate-arloan aurrera egiteko bide bezala enpresa-berrikuntza sustatuko duten politika publikoak, diruz lagundutakoak edo arautze-izaerakoak bultzatu behar dira.

Erakunde-arlo publikoari dagokionez, ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren aldeko apustu partekatua konstituzioan eta estatutuetan ezarritako eskumenen errespetu osoan oinarrituta egin behar da.

Era berean, arlo horretan partekatutako lankidetzak eta ahalegina bultzatu behar dira. Noranzko guztietan. Hasteko, erakunde-arlo publikoan. Baina, bereziki eta premiaz, ekonomia- eta enpresa-arloaren eta erakunde ikertzaileen artean, zehazki, unibertsitate-erakundeak eta, oro har, teknologia-hezkuntzakoak.

Hainbat arlotan dauden araudi-esparru ezberdinak ahalegin eta orientazio horretara egokitzuz eta doitzuz jarraitu behar dugu, ikerketa- eta berrikuntza-jarduera normaltasunez garatzeko gaur egun oraindik dauden oztopoak desagertu daitezkeen. Hainbat arlotan garatu behar da ikerketa- eta berrikuntza-jardura hori: ikertzaileen estatutua; unibertsitateetako irakasleen eta ikertzaileen estatutuen arteko bateragarritasuna; ikertzaileen lanbide-karrerak; ebaluazio-sistemak; nazioartean ospea daukaten ikertzaileak ekartzea...

Elkarlanaren eta kooperazioaren bitartez, European parte hartzeko eta lehiatzeko gai izango den Zientzia eta Teknologia Sistema finkatuz joan behar dugu.

Berrikuntza bultzatzearekin batera, eta horren oinarri gisa, enpresak sortzeko espiritua sustatu eta garatu behar da. Arriskuak hartzeko gai ez bagara, ez dago garapenik; ez gizarte-garapenik, ezta giza garapenik ere.

Enpresak eratzeko bokazioak sortu, azaleratu eta garatzeak, oro har enpresak eta, bereziki, oinarri teknologikoko enpresak sustatzeak, industria- eta ekonomia-politikaren helburu argiak izan behar dute, bai horiek arautzerakoan, bai eta garapen praktikoa gauzatzekoan ere.

#### **4.2.2.2. Bizitza osoko prestakuntza**

Gaur egungo ekonomian, pertsonen prestakuntza-maila faktore erabakigarria da. Izan ere, ekonomiak berrikuntzan oinarritu behar du bere lehiakortasun-maila.

Horrek, hasteko, hezkuntza-sistema sendoa, malgua eta irekia eskatzen du, pertsonengan eta gizarte osoan aldatuz doazen garapen-beharrei erantzuteko, gaur egungoei zein etorkizunekoiei. Horrez gain, herritar guztiek ahalegina egin behar dute bizitza osoko prestakuntza jasotzeko, eta kultura hori zabaltzeko.

Lehen mailako ikasketak dituzten langileen taldea garrantzia galduz doa, eta, bestalde, handituz doa erdi- edo goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen prestakuntza. Hala ere, langileen prestakuntza-maila ez dago araututako prestakuntzan amaitutako ikasketa-mailaren menpe bakarrik, baizik eta baita enpresan bertan edo langabezia-aldian jasotako prestakuntza jarraitu eta iraunkorraren menpe ere.

#### **4.2.2.3. Garraio-azpiegiturak**

Produktibitatea, lehiakortasuna eta ekonomia- eta gizarte-garapena oso lotuta daude gizarte horren azpiegitura-garapenarekin. Berziki, garraio-azpiegiturekin dago lotuta.

VIII. legegintzaldia, segur aski, ez da legegintzaldirik okerrera izan garraio-azpiegituren garapenari dagokionez, ez inbertsio-erritmoan, ez eta plangintza-ahaleginean ere. Baina, aldi berean, epe ertain eta luzerako ikuspegi- eta plangintza-falta ere agertu du, eta nabariak izan dira, baita ere, horiek kudeatzeko sistemen eta moduen hutsuneak. AHTren inguruan eta, bereziki, trenbide-azpiegitura hori Kataluniara heltzearen inguruan izan den eztabaida latza horren adibide garbia da.

Joan zen legegintzaldian Azpiegituren eta Garraioaren Plan Estrategikoa (PEIT) egin zen, eta hori aurrerapausoa da garraio-azpiegituren plangintza egoeraren araberako baldintzetatik askatzeko eta plangintza hori ahalik eta gehien

doitzeko epe ertain eta luzera. Izan ere, plangintza horretan epe ertain eta luze hori hartu behar da kontuan, horren arabera inbertsio-aukerak ezartzeko. Edonola ere, plangintza hori garatzerakoan eta, batez ere, burutzerakoan, egoeraren arabera norgehiagoka eta eztabaida politikoak sortu dira eta, batzuetan, norgehiagoka eta eztabaida horiek alderdikoiak izan dira. Horren ondorioz, plangintza hori ez da batere efizientea izan.

Hori dela-eta, garraio-azpiegituren plangintza serio eta zorrotza egitea – eta are gehiago gero plangintza hori garatzea – administrazio zentralak konpontzeko duen arazoa da.

Horrek beste lan-metodologia bat eskatzen du eta, horrez gain, joan den legegintzaldiari dagokionez, beste prozedura eta jarrera batzuk ere eskatzen ditu.

Azpiegituren eta Garraioaren Plan Estrategikoaren garapena plangintza-ariketa teorikoaren ondorioa izan da, Ministerioak egoeraren arabera izan duen asmoaren emaitza, eta hori izan da, hain zuzen ere, plan horren efizientzia-erazaren arrazoi nagusietako bat. Izan ere, plangintza horrek zuzenean ukitutako administrazio guztien ikuspegi eta asmoak batu izan balira, emaitza beste bat izango zen.

Hori dela-eta, IX. legegintzaldiak honela hasi behar du: batetik, erakundeen arteko lankidetzaren prozeduren bidez, epe ertaineko eta luzeko azpiegituren plangintza eguneratu eta suspertu behar du; eta, bestetik, estatuak asmo argia azaldu eta berretsi behar du garraio-azpiegiturekin lotutako inbertsioaren erritmoari eusteko eta erritmo hori sendotzeko.

Euskal Taldearen ustez, Azpiegituren eta Garraioaren Plan Estrategikoaren azpian dagoen oinarriko filosofia, neurri handian, erabilgarria da garraioaren azpiegitura-plangintzari heltzeko orduan. Ñabardurekin, edonola ere. Garraio-azpiegituren kapituluak Euskal Taldearen lana, ahalegina eta konpromisoa bideratuko dituzten printzipioak, edozein kasutan, honako hauetan oinarrituko dira:

- Mugikortasun- eta garraio-sistema integratu baten aldeko apustua egitea. Atzean utzi behar da garraioaren konpartimentu-ikuspegia, bertikalki zein horizontalki, eta herritarren eta ekonomia- eta gizarte-garapenaren zerbitzura egongo den sistema integratu baten aldeko apustu garbia egin behar da.
- Aldi berean, ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagokionez iraunkorra den mugikortasun- eta garraio-sistema baten aldeko apustua egitea. Epe laburreko eta egoeraren arabera ikuspegiak alde batera utzi eta, modu iraunkorrean, ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagokienez erakundeak diren helburu eta beharrei erantzuten dieten ikuspegiak alde egin behar da, epe ertain eta luzean.
- Arlo guztietan Europako garraio-sisteman integratzearen aldeko apustu irmoa egitea. Garraio-azpiegituren sistemak zehaztu, planifikatu eta garatzerakoan, bai eta kudeaketa-sistemak definitu eta modu bateragarri eta integratuan abian jartzerakoan ere.
- Erakundeen artean koordinatuta, azpisistema ezberdinen sistema kudeatzearen aldeko apustua egitea. Horretarako, subsidiarotasun-printzipioa aplikatuko da, administrazioerik egokienaren irizpidearen bidez, burutzapenerako botere publikoei dagokienez.
- Garraioaren arloko ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egitea.
- Administrazioen arteko eta horien eta sektore pribatuaren arteko plangintza integratuaren aldeko apustua egitea epe ertain eta luzerako, garraio- eta mugikortasun-sistema ezberdinei dagokienez. Plangintza integral hori prozeduren bidez egingo da, zorrotza izango da, eta parte-hartzea bultzatuko du.

EAJ-PNVk Gorte Nagusietan duen ordezkariak babesa emango die estatuan egingo diren proiektu eta ekimen guztiei, legegintzakoei zein betearazleei, printzipio horiek betetzen badituzte.

Zehazki, printzipio horiek Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeari dagokionez, Kongresuko eta Senatuko euskal taldeek, jarduteko eskema orokor gisa, defendatu egingo dute Euskadi mailan Garraio eta Logistika Sare Integrala eraikitzea. Sare horrek garraio-sistema ezberdinak jaso behar ditu - trenbideak, aireportuak, portuak eta bideak -, horrela, modu koordinatu eta integratuan garatu ahal izateko, eta herritarrek eta jarduera gure herrian egiten duten agenteek dituzten mugikortasun- eta garraio-beharrei behar bezala erantzuteko. Gaur egun ezarrita dagoen eskumen-banaketa arabera, eta banaketa hori aldatzen ez den bitartean, sare horren plangintza, eraikuntza eta kudeaketa EAEtik bertatik burutu behar da, baina, hori bai, oso lotuta egongo da estatuko esparruarekin eta Europako esparru orokorrarekin, hori baita bermerik onena integrazio egoki eta eraginkorragoa lortzeko.

Euskadi mailako Garraio eta Logistika Sare Integral horren esparruan, Euskal Taldeak postulatatu hauek defendatzen ditu:

1.- Azpiegitura horien titulartasuna alde batea utzita (EAJ-PNVk Gorteetan duen ordezkariaren etengabeko aldarrikapen politikoa da hori), ezin da gehiago atzeratu aireportuen kudeaketa deszentralizatzea, horrela, horiek kudeatzen dituzten



sozietateetan erakunde eta organismo publiko eta pribatuak sartu ahal izateko, aireportuen lehiakortasun-maila bermatzeko. Aireportuen kudeaketa pasiboko egungo ereduaren aurrean, kudeaketa aktibo, bizkor eta malguko eredu alternatiboa bultzatu behar da berehala, enpresa-arloko ezaugarri gehiago izango dituen, Europako aireportu askoren kudeaketa-ereduekin bat etorritik.

2.- Premiaz eta irmotasunez bultzatu behar da itsas garraioa; horretarako, European egin den apustuarekin bat etorritik, zerbitzu berriak jarri behar dira abian, errepideetako egoera arintzeko.

Horretarako, Bilboko eta Pasaiako portuen garapena eta modernizazioa bultzatu behar da. Bestalde, Euskal Taldearen iritziz, Pasaiako portuaren etorkizuneko garapena Pasaialdeko inguruaren biziberritze integralaren barruan egin behar da. Horretan ari da lanean, hain zuzen ere, Jaizkibia sozietatea. Horrekin lotuta, badiaren kanpoaldean portu-azpiegitura berria eraiki behar da, eraginkorra, iraunkorra eta lehiakorra.

3.- Trenbideen kapituluan, RENFEren Aldirikoen Sarea Eusko Jaurilaritzari transferitzea aldarrikatzen dugu, ahalik eta eperik laburrenean. Horrela, pauso sendoz, aurrera egingo dugu, irmotasunez eta premiaz, helburu hau lortzeko: Euskadiko trenbide-sarearen plangintza bateratua eta ustiaketa koordinatua. Horren helburua da trenbide-linea ezberdinen eskaintza integratu eta osagarria eratzea, herritarrek gaur egun dituzten eskariei zerbitzu efiziente eta egokiagoa emateko. Horrela, lurraldearen antolaketa arrazoizkoa eta iraunkorra izango da, eta, horri esker, zerbitzuen ordutegiak osagarriak izango dira eta maiztasunak handitu egingo dira, bai eta erabiltzaileak hartzeko guneak ere, behar ez diren bikoiztasunak saihestuz.

4.- Trenbideen plan bateratu horren barruan, enpresa-arloan duen garrantzagarritik, honakoa nabarmendu behar da: portuek behar bezala lotuta egon behar dute, trenez. Bilboko Portuaren kasuan, gaur egun salgaiei irteera ematen dien trenbide-linea kortse bat dela esan dezakegu portu-azpiegitura garatzeko eta, zentzu horretan, "Hegoaldeko Trenbide Saihesbidea" Euskal Taldeak bereziki lortu nahi duen aldarrikapena da. Izan ere, lotura hori ezinbestekoa da portu horren lehiakortasunerako.

5.- Trenbide-kapitulu honetan, Euskal Trenbide Sare Berriaren (Euskal Y-a) eraikuntzari dagokionez Euskal Taldeak joan zen legegintzaldian lortu zituen aurrerapenak direla-eta, Talde horrek eraikitze-lan horien jarraipen zorrotza eta ardurasua egin beharko du datozen lau urteetan. Gure helburua da garrantzi eta balio handiko azpiegitura hori, datozen lau urteen buruan, garraio-sare integral baten parte izatea. Garraio-sare integral horrek aldirietako zerbitzua, intercity zerbitzua eta distantzia luzea integratu eta bultzatuko ditu, eta salgaien trafikoa handiagoa egongo da trenbide-sare guztietan.

### 4.3. Estatuaren inbertsioa Euskadin

Estatuko Aurrekontu Orokorrak eztabaidatu eta eztabaidatu ostean, estatuak gure herrian egin dituen inbertsio eskasak kontuan hartuz, estatua Euskadiz ahaztu egin dela esan dezakegu.

Eskualdetu daitezkeen estatuaren inbertsio zuzenak, hau da, aurrekontu-baliabideez finantzatzen direnak eta estatuaren eskumenekoak, nekez iristen dira guztirako %1era Euskadin.

Beste erakunde batzuek (hala nola, ADIF (Trenbide Azpiegituren Administrazioa), Aireportuak, Portuak, eta abar) egiten dituzten inbertsioak sartzen baditugu, ehuneko hori %2ra igo zen 2008rako aurrekontuetan, euskal "Y" trenbidea eraikitzeke aurrez ikusitako kredituak barne, administrazio zentralak egin behar duen tarterako.

Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatearekin batera, estatuaren inbertsiorik baxuena duen lurraldea da, bai balio absolututan, bai eta BPGren edo biztanleriaren arabera balioetan ere.

Jarrera hori behin eta berriz errepikatzen bada, defizit sakona sortzen du ekonomia-sistemak ondo funtzionatzeko behar duen kapital-stockean.

Estatuko administrazio zentrala, bere eskumenen arloan, ezin da ahaztu Euskadin egin behar dituen inbertsioez.

EAJ-PNVtik, Euskadirekiko konpromiso handiagoa exijituko diogu estatuari.

Estatuak asko handitu behar ditu Euskadin eginko inbertsioak. Estatuko biztanleriaren %5 gara eta BPGren %6 baino gehiago sortzen dugu; hori horrela, ezin da azaldu estatuaren inbertsioa %1 ingurukoa izatea Euskadin.

Datorren legegintzaldian inbertsioen ehunekoak gure biztanleriaren edo BPGren garrantzia hartzea exijituko dugu. Hori aldarrikapen garrantzitsua izango da parlamentuko gure taldearentzat.

Era berean, 2008rako aurrekontuetan adostutako inbertsioen jarraipen zorrotza egiteko konpromisoa hartu dugu, bai eta etorkizunean adostu daitezkeen inbertsioena ere. Horren helburua da aurrekontu-gauzatzea maximizatzea eta, horrela, benetan burutzen dela bermatzea.

## 5. HERRITARRAK ETA KOHESIOAREN BILAKETA ARDATZ DITUZTEN ENPLEGUKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO POLITIKEN ALDE

EAJ-PNVren jarduera politikoaren eta erakunde-jardueraren gunea gaurko eta etorkizuneko euskal gizarte eraikitzea da; etorkizun hori ziurra ez den arren, aurreikusteko eta eskuratzeko modukoa izan dadila lortzen ahalegindu behar dugu, gaur egungo egoera ekonomiko, sozial eta kulturala oinarri hartuta.

Sortu zenetik, orain dela 112 urte, EAJ-PNV Euskadirentzat bizikidetzaproiektu baten alde lanean ari da aurrerabidean, justizian, bakean, askatasunean eta elkartasunean oinarrituta, kohesio soziala eta euskal eragile sozial guztien erabateko bategitea bitarteko direla. Proiektu hau kanpoalderantz adierazten da, Europa Soziala taxutzeko laguntza eta babes emanaz. Europa horretan babes-neurriak izango dira justizia sozialaren bermea, Lisboako Goi-bileran ontzat emandako Funtsezko Eskubideen Europako Gutuneko bultzadei jarraiki, bereziki gutun horretan biltzen diren izaera sozialeko funtsezko eskubideei dagokienez.

### 5.1. Enplegu politikak

Duela gutxi AEBn finantza-krisia gertatu arte ekonomiaren goranzko zikloan bizi izan gara, eta horri esker Euskadin enplegu bete tekniko egoera sortu da (%3,1eko enplegu-tasa). Hori gorabehera, etorkizuna zalantzazkoa dela ez dugu begien bistatik galdu behar. Zalantza sortzen dute hain zuzen ere hazkunde-tasak, prezioen kontrolak, sortzen den enpleguaren kalitate eskasak, enplegu horren prekaritate-, aldi baterakotasun- eta azpikontratazio-indize handiek, eta gure herrian dauden mila eurodun ugariak.

Hala ere, oraindik enplegua sortzeko moduko egoera dago. Egoera ekonomikoa oso egonkorra da, inflazio-tasa murriztu ahal da, eta baliteke enpresaburu elkarten eta sindikatuen arteko akordio bitartez soldata-kostuak egonkortzea (Estatuan euskal sindikatu zein enpresaburu-elkarteak akordio horietatik bazter uzten dituzte); gainera, ziurrenik Europako Banku Zentralak diruaren prezioari eutsiko dio. Itxaropenez betetako prozesu horretan laguntzen dute hauek: Sektore teknologiko aurreratuetan eta lan-merkatuetan inbertitzeko eragozpenak dauzkaten sektoreetan enplegua pizteko neurriak, bai eta ekonomia sozialeko eta autoenpleguko neurriak, lan-denbora banatzeko neurri partzialak, enpresa-taldeekin itundutakoak, eta aldi baterako enplegua enplegu finko bihurtzeko neurriak.

Horretarako, ezinbestekoa da administrazio edo bestelako botere publikoek nahiz solaskide sozial guztiek eta agente ekonomikoek enpleguari buruz daukaten jarrera bilduko duen itun sozial handia bideratzea.

Europar lana banatzearen aldeko joerak gero eta nabarmenagoak dira, eta EAJ-PNVk ezin dio horri muzin egin.

Itun sozial batek enplegua sortzea xede duen errenta politika harmoniza dezake, eta enpleguarentzat oso garrantzitsuak diren jarduerak bil ditzake; besteak beste ondoko hauek:

Soldata igotzea sektore ekonomikoen produktibitatearen bilakaerarekin batera.

Etekinak sektore ekonomikoen eskakizun ekonomikoen arabera banatzea.

Beste merkatu batzuk desarautu eta liberalizatzea lehiakortasunaren eskakizunen arabera (lehia asketik kanpo dauden ondasun eta zerbitzuen merkatuak, ia-ia monopolio araubidearen mende jarduten duten enpresak, etab.).

Enpleguaren banaketan eragina daukaten neurriak:

- a) Aparteko orduak kontrolatzea.- Aparteko orduak salbuespenezkoak izango dira eta unean-unean egingo dira, arrazoi objektiboengatik. Aparteko orduak murrizteko, zorrotz kontrolatu eta zigortu beharko dira. Sektore publikoa eredu-garria izan beharko da hori betetzeari dagokionez.
- b) Lanaldia murriztea.- Lanaldia murriztea gizartearen eztabaidatu eta aztertu egin behar da, lanbide arteko akordioak eta hitzarmen kolektiboak adostuz, eta egokia bada, akordio eta hitzarmen horiek gauzatu. Edonola ere, gai honetan egoera sozialak eskaintzen dituen berrikuntza guztiak aztertzeko prest egon beharko dugu.

Kanpoaldean agertzea beharrezkoa da, sektore publikoari nazioartekotzea sustatzen modu aktiboan esku har dezan eskatzeko. Kanpoaldean agertu ahal izateko, batzuetan bide bakarra enpresen arteko lankidetzaz izango da, eta horretarako ahaleginak koordinatu beharko dira, bai eta hainbat baliabide eskuratu; hona hemen baliabide horietako batzuk:

Kanpoaldeko agentzia publikoen sareak. Horiek prospekzioa errazten dute, merkatuaren eta bere funtzionamenduarauen ezagutza hobetzen dute, eta beste enpresa batzuegana lankidetzaren edo elkartze egonkorren bitartez hurbiltzeko aukera ematen dute.

Enpresen zerbitzurako finantza-baliabideak, bai merkatuko eta prospekzioko azterketak egiteko, bai sare propioen bidez kanpoaldean ezartzeko, banatzaileen bitartez zeharka merkaturatzeari utzita; izan ere, zeharka merkaturatuz gero ezinezkoa izaten da bezeroarekiko harreman zuzena izatea eta haren beharrianak zein diren jakitea.

## 5.2. Arlo ekonomikoko jarduera-neurriak, enplegua sustatzeko

Jarduera-tasaren hazkundera areagotuko da eta enplegua sortzea helburu duen jarduera ekonomikoari pizgarriak emango zaizkio, arlo ekonomikoko jarduera-neurri hauen bitartez:

- a) Gastu publikoaren arloan, murrizketen bitartez, horrela zerga-baliabideen xedea berriro bideratu eta hazkunderako politika izango delakoan.
- b) Inflazioaren aurkako politika, eta errenten politika, kapital fisikoa nahiz giza kapitala hazi ahal izateko, lehena inbertsioaren bitartez eta bigarrena prestakuntzaren bitartez.
- c) Ezkutuko ekonomia arautu eta kontrolatzea.
- d) Hazkunde ekonomikoa bideratzea industria arloan nahiz teknologiaren eta eskualdeen garapenaren arloan.
- e) Gure enpresetan teknologia berriak eta ikerketako mailarik aurreratuak txertatzeko sustapen publikoa egitea, aurrekontuak behar bezala kontuan hartuta. I + Gko planak ugaritzea.
- f) Hitzarmen sozialerako neurriak, lan-kostuen arrazoizko igoera hitzartu ahal izateko, eta ondorioz soldaten shock-a delakoaren inflazio-ondorioak murrizteko.
- g) Ekoizpena indartzeko zerga-neurriak, batik bat esportazioei dagokienez.
- h) Kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren bultzadari eustea, burtsa-merkatuaren egitura arrazoiz egokituz.
- i) Krisian dauden industria-sektoreak onbideratzea eta berrindustrializazioko politika irmo bati ekitea (politika orekatua, sektoreei eta eskualdeei dagokienez).
- j) Gure lan-merkatuko egitura zurrun batzuek jartzen dituzten eragozpen juridikoak desagerraraztea, ados jarrita, eragozpen horiek lehia askea eta enpresen lehiakortasuna oztopatzen baitituzte.
- k) Ekonomia Sozialeko enpresak finantzen arloan sendotzea, enpresa horiek nazioartean krisi ekonomikoaren erasoei aurre egiteko ahalmen nabarmena agertu baitute.
- l) ETEak sendotzeko laguntzak ematea hainbat ikuspegitatik: finantza arloan, berme-sistemen egituraketan, enpresen kudeaketa eta informazio sistemen hobekuntzan, egokitzapen teknologikoan eta merkatu berrietara sartzeko gaitasunean.
- m) Sektore ekonomiko homogeneoetako enpresak euren beharrian kolektiboari arretea egingo dieten taldeetan txertatzeko planak egitea, talde horiek enpresei nazioarteko merkatuetan lehiatzeko eta eskalako ekonomien onurak erabiltzeko beharrezko dimentsioa emango dietelakoan.
- n) Lanbide heziketa arautuko eta lanerako prestakuntzako programak sakonki eraberritzea, lan-merkatuaren eskakizunen eta batzuetan ikasketa-planetan eskaintzen den prestakuntza zaharkituaren arteko sintonia falta tamalgarria saihesteko. Eraberritzean arlo hauek kontuan hartuko liriteke: prestakuntza merkaturatzea, prestakuntza, eskualdeko enpresaburuekin hitzartutako prestakuntza, txandakako prestakuntza eta prestakuntza praktikoa, prestakuntza sofistikatu (arlo teknologikoan), lanerako prestakuntzaren transferentzia Autonomia Erkidegoentzat.
- o) Enplegurako tokiko ekimenak sustatzea, Udaleri ekimen horiek behar bezala garatzeko finantza- eta kudeaketa-ahalmena emanez.
- p) Beste herri batzuetan arrakastaz egindako saiakerak egitea, adibidez Garapenerako erkidegoko agenteak txertatzea, eta Administrazioaren zeregin publiko batzuk barreiatzea eta gazteek edo iraupen luzeko langabetuek sortutako enpresa berrien eskuetan uztea, etab.

Etengabeko Prestakuntza egituratzea Autonomia Erkidegoetan. Hain zuzen ere, Erkidego horietan enpresaburuek eta langileen ordezkariak Langileen Estatutuko 84. artikuluan aurreikusitako akordioak egin beharko lituzkete. Euskadin, Hobetuz sorrarazi zuen Lanbide arteko Akordioa aipa daiteke.

- q) Lanerako kooperatiba eta sozietateak indartzea beren zerga-araubide bereziari eutsiz; araudiak eraberritzea (adibidez, bi bazkidek kooperatiba bat sortu ahal izatea) eta eskumena daukaten erakunde publikoek sustapen laguntzak ematea.
- r) Ekonomia Sozialeko enpresen arloan lehiakortasunerako sinergia endogenoak sortuko dituzten talde integratuak sortzea; hona hemen sinergia horietako batzuk: kreditua eskuratzea; erosketa-zentralak; kideentzako kontsumo-egiturak; energia-baliabideak merkatzea; etab.
- s) Krisian egondako enpresetatik sortu diren nahiz enpresa horiek ordeztu dituzten kooperatibak eta Lan-Sozietateak soldatak bermatzeko fondoarekin eta Gizarte Segurantzarekin dauzkaten zorretatik salbuestea, kooperatiba eta Lan-Sozietate horiek ekonomia zein finantza arloetan finka daitezela lortu arte.

### 5.3. Gazteen enplegua sustatzeko neurri bereziak

Gazteen enplegua sustatzeko, EAJ-PNVk lan-ildo hauek proposatzen ditu:

- a) Aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren soldata-prestazioa daukan laneratze-kontratua ezartzea. Horretarako, administrazioak eta enpresaburuek prestakuntza-plan berezi bat egituratzeko konpromisoa hartu beharko dute. Kontratu hori 30 urtetik beherakoentzat da; aldi baterakoa izango litzateke, eta iraupen mugagabeko kontratuarekin baliokidetu ahal izango litzateke; eta, azkenik, kontratua luzatzen den bakoitzean modu linealean igoko liratekeen laguntza publikoen bitartez lagunduko litzateke, zerga-onurekin, eta Gizarte Segurantzako kuota merkeagoekin, kuota horiek administrazioak konpentsatuko lituzkeelako (zenbateko normalaren erdia, gutxienez).
- b) Inbertsio-gastuetarako eta zirkulazioko kapitalerako diru-laguntza bereziak laneratze-kontratuaren bidez hiru gazte baino gehiago kontratatzen dituzten enpresa sortu berrientzat.
- c) Enplegu publikoko eskaintzaren %15 gazteak kontratatzeke erabiltzea.
- d) Praktiketako kontratuen eta prestakuntzako kontratuen formulak iraurarazi eta hobetu.
- e) Tokiko Administrazioak sortzen duen enplegua gazteei eskaintzea, udaletako obra eta baliabide publikoetan gazteentzat derrigorrezko enplegu-kuotak ezarri, bai eta garapen ekonomikorako udal agentziak, tokiko enplegu-ekimenak eta Tokiko Administrazioaren gainerako sustapen-jarduerak bultzatuz.
- f) Gazteen talde eta elkarteei Tokiko Administrazioaren hainbat zeregin adjudikatzea aisialdiaren, ongintzaren eta gizarte ongizatearen arloetan. Jarduera horiek administrazioaren kontrol eta tutoretzapean adjudikatzea.
- g) Lantegi-eskolak eta artisauen lanbideen ikasketa bultzatzea.
- h) Ekonomia sozialeko enpresentzat finantza-arloko diru-laguntza bereziak (prestakuntzarako, inbertsiorako, zirkulaziozko kapitalerako), baldin eta enpresa horiek gazteek soil-soilik sortu badituzte edo horietan batik batik gazteek parte hartzen badute.
- i) Ekonomia irregularreko jardueretan aritzen diren eta beren jarduera erregularizatzea erabakitzen duten gazteentzako sustapen-neurriak.
- j) Lanbide heziketan eta bigarren hezkuntzan irakasgai berri bat sartzeko. Irakasgai horrek, simulaziozko prozeduren bitartez, enpresen sorrera zein kudeaketa, bezero edo hornitzaile izan ahal direnekiko harremana, lehiaketetako partaidetzak, etab. bideratuko lituzke.
- k) Administrazio Publikoetan aholkularitza bulegoak ezartzea, bereziki gazteen enpresen kudeaketari lotutako arloetan.
- l) Enplegurako udal bulegoak sortzea, bere ardurapeko eskualdean gazteentzat egon daitekeen enpleguari buruzko ikerketa eta prospekzioa egiteko.
- m) Txanda-kontratuak egiteko pizgarriak ematea.
- n) Gazteen autoenplegua bultzatzea publizitate-sustapenari eta lanbiderako materialaren eskuraketari lotutako laguntza gehigarriekin.
- o) "Prestakuntzako beken" politika bizia egitea, gazteei teknologikoki aurreratuen dauden herrietan eta ikerketa-institutu sofistikatuenetan prestakuntza emateko.
- p) Solaskide sozialekin kate-azpikontratazioari aurre egiteko neurriak hitzartzea. Lan arloko patologia horrek oso soldata txikiak eta enplegu prekarioa sorrarazten ditu, baita lan-istripurik gehienak ere.

## 5.4. Enpleguarekin zerikusia daukaten arazo batzuk

### 5.4.1. Lanaldia

Enplegu-politiken osagai nagusietako batek lanaldiarekin dauka zerikusia. Gaur egun herri industrializatuetan astean gehienez 40 ordu lan egiten da, oporrak eta istripu edo gaixotasunen ziozko bajak kontuan hartuta ere; joan den mendeko arbasoen aldean (egunean 12 edo 14 ordu astean) lanaldi partzialean lan egiten dugula ematen du. Urte gutxiago ere ematen dira lanean. Batez beste, langileen soldatapeko lanaren denbora, guztira, beste garai batzuetan egiten zenaren zati txiki bat besterik ez da.

Frantziako esperientziak erakutsi zuen bezala, lanaldiaren arazoa da ezin dela lana banatzeko sistema bat sortzeko oinarri gisa erabili. Hala ere, lanaldiaren arazoari negoziazio kolektiboaren barruan heldu beharko zaio, modu atomizatuan, enpresa-sektore bakoitzaren edo enpresa bakoitzaren beharrezko jaramon eginda.

### 5.4.2. Prestakuntza

Beste auzi bat prestakuntzarena da. Enpleguarekin zerikusia daukaten gaitasunak garatzea, funtsean, enpresaburuen eta herriko irakaskuntza- eta prestakuntza-sistemaren erantzukizuna da.

### 5.4.3. Enplegu zuzena sortzea

Laugarren auzia enplegu zuzena sortzea da. Normalean aldi baterako enplegua da, sektore publikoan edo irabazteko asmorik gabeko erakundeen eremuan sortzen da (erakunde horietan gero eta garrantzi txikiagoa dauka).

Horregatik, orain kontratazio finkoa gehitzeko pizgarri osagarriak abian jartzeko garaia da; honelako pizgarriak izango liriteke: Gizarte Segurantzako kuotak %60 eta %40 artean murriztea, enplegu berria den ala ez eta kolektibo bat edo beste kontratatzen den kontuan hartuta; PFEZen salbuespena aitortpena moduluen bitartez egiten duten enpresek egindako kontratu finkoetarako.

Erakundeek, lanbide heziketa ona bideratzeaz gain, gazteen eta iraupen luzeko langabetuen kontratazioa sustatzeko beste mota bateko laguntzak ezarri beharko lituzkete, bai eta lan eskaintza eta eskaria lotzeko prozesuak bizkortu, eta Europako konbergentzia nominalean zorrotzago jokatu.

Langabeziaren arazoa denona da, eta denek lagundu behar dute arazo hori konpontzen. Gaitz hori konpontzeko Itun Soziala eta Lanbide arteko Akordioa beharrezkoak dira, bere bilakaerak Ongizatearen Estatuaren etorkizuna kolokan jar ez dezan.

### 5.4.4. Kotizatzaileen finantza-karga

Bosgarren auzia, kotizatzaile bakoitzak jasango duen finantza-karga prebenitzea da, datozen urteetan pentsioetan eta langabezian egingo den gastu handiagoari aurre egiteko nabarmen gehituko baita.

Pentsioei dagokionez, kargaren igoera %63'66koa izango da 1996-2020 aldian; igoera partzialak, berriz, hauek izango dira: %12'98 (1996tik 2000ra), %9'7 (2001etik 2005era) eta %32'1 (2006tik 2020ra). Horrek esan nahi du urtean igoera bateratu hauek egongo direla: %3'1 1996tik 2000ra, eta %1'87 2001etik 2020ra bitarteko aldian. Karga horren zati bat kotizatzaile bakoitzeko benetako ordainsariaren hezkundeak (soldataren igoeraren %1'6) xurgatuko du.

Langabeziari dagokionez, finantza-karga horrek %31'05 gora egingo du 1996-2020 aldian; igoera partzialak hauek izango dira: %10'5 (1996tik 2000ra), %15'3 (2001etik 2005era) eta %2'9 (2006tik 2020ra). Horrek esan nahi du urtean igoera bateratu hauek egongo direla: %2'52 (1996tik 2000ra), %2'88 (2001etik 2005era) eta %0'19 (2006tik 2020ra). Karga horren zati bat benetako soldaten hezkundeak (urtean %1'6 bateratua) xurgatuko du.

## 5.5. Lan-harremanen esparru autonomoa

Zalantzarik gabe, gure nazioaren eta Estatu gainerako erkidegoen arteko diferentziarik handienetako bat eremu sozial eta ekonomikoan dago. Gure Itun Ekonomikoari esker, Euskadin eremu ekonomiko diferente eta berezia eratu da, zergen arloan; hain zuzen ere lurralde baten autonomia-ahalmenari eta bere industriaren, finantzen, enpresaburu-elkarteen, sindikatuen, etab.en berezitasunei lotuta dauden zergen arloan.

Horregatik, Euskadiko gizartean jende gehienak errealitate berezi bateko kide izatearen kontzientzia dauka. Hori gizarteko hainbat arlotan agertzen da, besteak beste politikan, edo hemen azaltzen ari garenaren haritik, enpresen eta sindikatuen arloan.

Confebask-ek Euskadiko enpresen errealitate berria biltzen du; bertan daude kidetutako enpresa guztiak. Gainera, Euskadin nabarmendu behar da finkatuta daudela oinarrian mutualitateak dauzkaten sozietateak, esate baterako kooperatibak edo lan sozietate anonimoak eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak (BGAE).



Era berean, azpimarratu behar da Herri honetan langile gehienak ordezkatzeko dituzten sindikatu nazionalistak daudela. Zenbakiei erreparatu badiogu, ELAk euskal langileen %40 ordezkatzeko ditu, eta LABek, aldiz, %15 baino apur bat gehiago. Datu horien aldean, adierazi behar da Euskadin UGT eta CC.OO sindikatuak ez daudela oso finkatuta (biek %15 baino apur bat daukate, beheranzko joerarekin). Sindikatu horiek esparru autonomoaren aurka egiten dute, status mesedegarria ematen dien legedi baten babespean.

Horregatik, gure Herriko langileek argi eta garbi sindikatu nazionalisten alde egiten dute, Euskadin Estatuko gainerako aldeetan ez dagoen sindikatu- eta enpresa-kultura dagoelako; gure nahiak beteko dituen jarduera-esparrua behar dugu, gure Erkidegoko solaskide sozialak askatasunez elkarrizketatu ahal izan daitezen, behin eta berriz eskatzen duten moduan.

EAJ-PNVkook erraztasun handienaz jarduteko esparru hori langileei ematen saiatu behar dugu. Lan-harremanen esparru autonomo baterantz aurrera egin behar dugu.

## 5.6. Lan-arloko eskumenen ikuspegia

Konstituzioaren testua azkar begiratu gero ez dugu oso etorkizun itxaropentsurik ikusten. Konstituzioaren 149.1-7. artikulua dioenez, Estatuak dauka lan-arloko legedia ezartzeko eskumen eskusiboa; 17. paragrafoan, berriz, Gizarte Segurantzaren oinarriko legedia eta araubide ekonomikoa ere bereganatzen ditu.

Gainera, Konstituzio Auzitegiak bi agindu horiei buruz egiten dituen interpretazioak benetan jakobinoak dira; *legedia* adierazpena lege formalaren baliokide gisa ulertzen dute modu zorrotz-zorrotzean, eta ez horrela bakarrik, baizik eta arautzeko ahalmena ere barnean hartzen duen zerbaiten moduan. Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 12.2 artikulua mugen barruan Estatuaren lan-arloko legedia bete eta "ab intra" arautzeko ahalmena soilik uzten du.

Konstituzioaren 149.1-7. artikuluari dagokionez ere interpretazio murriztailea egiten da. Izan ere, printzipio edo irizpide oinarrikoak kontuan hartzen ditu, baina (eta hau da okerrean) Estatuaren organo nagusiei oinarriko legedia ezartzeko eskumena ematen die.

EAJ-PNVk Euskadin konpromiso hau dauka: uneoro Autonomia Estatutua gara dadila eskatzea; ahal eta guztiz ere, iragarri dugun bezala, esparru autonomoa ez genduke guztiz lortuko.

## 5.7. Negoziazio kolektibo propioa, esparru autonomoaren adierazpen gisa

Lan-arloan lan-harremanak eraentzeko arau berezi batzuk egoteko negoziazioa, prestaketa eta onespina hauen eskuetan utzi dira: sindikatuen eskuetan, langileen eskubideen defentsaren adierazpena delakoan, eta enpresaburu-elkarteen eskuetan, enpresaburuen aldetik. Horrela, gure sindikatuen eta Estatuko gainerako sindikatuen izaeraren arteko diferentziari are garrantzi handiagoa ematen zaio. Esparru autonomoa lortzeko, Euskadiko sindikatuen eta enpresaburu-elkarteen orain arteko jarrera errespetatuta, diferentzia horri negoziazioaren egitura osoan eustea datza EAJ-PNVren jarrera, horrela negoziazio kolektibo propioa, gure errealitatearen eskakizun ekonomiko eta sozialei egokitutako negoziazioa ezartzeko bidea egingo dugulakoan.

Ez da hemen amaitzen negoziazio kolektiboaren garrantzia. Izan ere, lan-arloan gero eta indar handiagoaz gertatzen ari da deslegalizazioaren fenomeno. Horrenbestez, sindikatuen eta enpresaburu-elkarteen arautze-ahalmena handitzen da, eta beren jarduera-eremuekin harreman zuzena daukaten gaitan akordio orokorrak egiteko aukera daukate, baita legezko eta arauzko xedapenak hurrenez hurren ordetzeko aukera ere.

Ikuspegi zentralistatik, CC.OO. eta UGT sindikatuak akordio edo hitzarmen horien egiturari dagokionez jarrera estatualistari eusten diote, Euskadiren errealitatea kontuan hartu gabe, hain zuzen ere gehiengo gisa jardun ezinda, garrantzi erlatiboa daukatelako.

Gure jarrera politikoari eutsiz, Euskadiko negoziazio kolektiboa bultzatu behar dugu, gure sindikatuak negoziatzeko jada daukaten aukera bereziari eskumen gehiago batzen saiatuta, horrela (legegintzaren bidetik ez ezik negoziazioarenetik ere) lan-esparru autonomoari mamia emango zaiolakoan.

- Alde batetik, denok dakigu lan-arloan gatazka kolektibo ugari sortzen direla eta horiek konpondu egin behar direla. Horretarako, PRECO (gatazkak auzibidetik kanpo ebazteko prozedura) sortu zen, eta duela gutxi eguneratu eta moldatu egin da (PRECO II).

- Beste lorpen handi bat, estatuko FORCEM deszentralizatzen duen Etengabeko Prestakuntzari buruzko Euskadiko Akordioa izan da. EAJ-PNVkook baliabide horren erabilera sustatu behar dugu, eta jardun egin beharko

dugu etorkizunean garapen positiboa izan dezan, Etengabeko Prestakuntza helburu duten kuotekin (enpresenak zein langileenak) finantzatuta.

- Lan-istripuen aurkako borroka Euskadin OSALAN oinarri hartuta antolatu behar da, Euskadiko solaskide sozialekiko akordio egokien bitartez, helburua lan-arriskuen prebentziorako behar bezalako politika eratzea dela, lan-istripuen tasa handiak benetako gaitz soziala baitira.

- Horri aurre egiteko, solaskide sozialekiko politika espezifikokoak hitzartu behar dira, bai eta enpleguaren prekaritatearen ardatza den kate-azpikontratazioaren abusuzko fenomenoaren aurkako politika aktiboa, eta mila eurora ozta-ozta heltzen diren soldaten eta gure merkatuko istripu-tasa handien aurkakoa ere bai.

- Arestian komentatutako eskumenen ikuspegitik, lan-harremanen arloko ondoko jarduera-baliabide hauek transferitzeari ekin behar zaio: enpleguko politika aktibo eta pasiboak; Enpleguko Institutu Nazionalaren eskumenak; soldatak bermatzeko fondoaren eskumenak; laneko ikuskatzaitza; lan-arriskuen prebentziorako bulegoak.

## **5.8. Gizarte Segurantzaren arloko hauteskunde proposamenak**

Gizarte Segurantzaren arazoak aztertzeak gaur egun esan nahi du gogoeta egitea pentsioen sistema publikoari eta haren ezaugarriek eusteko aukeraz, haren finantzaketa iturriez eta haren estaldura edo babes eremuaz.

Pentsio sistema klasikoak, enplegu bete lortu behar dela eta hori segurtasun sistema publiko nahikoen, unibertsalen eta atzerakorren bidez babestu behar dela aldarrikatzen duten konstituzioetan oinarrituak, II. Mundu Gerraren ostean sendotu ziren, eta ongizatearen estatua deitu zaiona sortu zuten. Mendebaldeko ekonomiaren bilakaerak aldaketak ekarri dizkio pentsio sistemari, haren bideragarritasunaren ikuspegitik. Gaur egun, EAJ-PNVk honako kontingentzia hauen babesa hobetzearen alde egiten du apustu:

### **5.8.1. Erretiroa**

Jarduerarik eza iraunkorraren arrazoi nagusia eta zama ekonomikorik handiena dakarrena erretiroa da.

Bereizi beharra dago borondatezko erretiroa eta nahitaezko erretiroa, norberaren konturako langileei, inoren konturako langileei eta klase pasiboentzako legeriara bildutako funtzionarioei eragiten diena.

Erretiro pentsioaren arazoa da 2010. urtera arte urteko %3,9ko hazkunde tasa metatua izango duela batez beste (2,23 pentsiodunen kopuruaren gehikuntzarengatik, eta batez besteko pentsioaren %1,9ko igoera) eta, aurreikuspenen arabera, 2010. urtean kotizaziopeko erretiro pentsioetan 3,65 bilioi pezeta gastatuko direla, 1993an baino %30 gehiago.

### **5.8.2. Aurre-erretiroa**

Euskadin asko dira aurre-erretiroa duten pertsonak, eta euren borondatearen kontra hartu zuten aurre-erretiroa, industria birmoldaketaren garaiko enplegu-erregulazioko espedienteek derrigortuta. Diputatuen Kongresuan Euskal Parlamentari Taldeak (EAJ-PNV) eskaturik onetsi diren proposamenen arabera, eskubidea izan behar lukete, 65 urte betetzean, euren erretiro pentsioaren zenbatekoa igotzeko, euren lanbide maila eta kategoria berean erretiroa behar zen garaian hartu zutenek bezainbeste kobratu arte, betiere honako baldintza hauek betetzen badira: 35 urte edo gehiago kotizatu izana, aurre-erretiroa borondatezkoa ez izatea, eta pentsioaren zenbatekoa hobetu ez izana. Hurrengo legegintzaldian, EAJ-PNVk lanean jarraituko du helburu hori benetan gauzatu dadin.

### **5.8.3. Alarguntasun eta zurztasun pentsioak**

Alarguntasun pentsioak eta, oro har, biziraupen pentsioak, horiek dira sistemako kaltetu handiak. Alarguntzen den pertsona bati, besterik gabe, ezkontide edo bikotekidea hil aurretik kobratzen zuenaren %52ra murrizten zaizkio diru-sarrerak. Beste alde batetik, prestazio honen izaera juridikoa aldatu egin nahi da, dirudienez, kotizaziopeko pentsioa izateari utz diezaion eta ordezen errenta bihurtu dadin. Gobernuak pentsio hauen zenbatekoa gero eta gehiago igotzeko hartu dituen neurriak oso urrun daude ukitutako alargunen eskakizunak asetzetik, eta ez dituzte betetzen oraingo egoerak sortzen dituen bidegabekeriak arintzeko behar diren baldintzak.

Alargunek jasotzen duten errenta hildako ezkontide edo bikotekideak jasotzen zuen errentaren %80 izan dadin lortu nahi du EAJ-PNVk.

### **5.8.4. Gutxieneko pentsioak**

Espainiako Estatuko Gizarte Segurantzako sistema publikoaren edozein prestaziok behar bestekoa izan behar du, Konstituzioak eskatzen duen bezala. EAJ-PNVren iritziz, nahikotasunaren baldintza hori bete dadin, sistemako gutxieneko pentsioek, kotizaziopekoak izan nahiz laguntzakoak izan, txirotasunaren atalasea gainditu behar dute, hau

da, EUROSTATEk emandako definizioaren arabera, herrialdeko batez besteko soldataren %60 gainditu behar dute. Horregatik, uste dugu gutxieneko pentsioa ezin dela izan 750 eurotik beherakoa hilean.

## 5.9. Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa kudeatzeko eskumenaren aldarrikapena

Euskadin, bizirik daukagu Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketari buruzko aldarrikapena. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuari egotzitako gaia izanik ere, oraindik transferitu gabe dago, eta horrenbestez euskal erakundeei gizarte batasunerako politikak diseinatu eta gauzatzeko tresna garrantzitsu bat ukatzen ari zaie.

Gernikako Estatutuaren 18.1 artikuluan ezarrita dagoenez, EAERI dagozkio Estatuko legeen garapena eta oinarritzko betearazpena barne osasunaren arloan. Bigarren puntuari eta Gizarte Segurantza kontzeptuaren barruan, berriz, EAERI dago: a) Estatuko oinarritzko legeen garapena eta betearazpena, haren araubide ekonomikoa eratzen duten arauak salbu; b) Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketa. Horri erantsi behar zaio Estatutuaren beraren bosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoa, transferentzietarako batzorde mistoari eskumena ematen baitio "komenio egokiak" ezartzeko, "zeinen bidez Komunitate Autonomoak bere esku hartuko baitu Seguru Sozialaren erregimen ekonomikoaren gestioa, beti batasunezko joerarekin eta solidaritatezko printzipioari jarraiki, gestio ordenatu batetarako komenio horietan erabakiko diren prozedura, epe eta konpromisoak jarraituz".

Gizarte Segurantzaren arloko eskumen autonomikoaren muina, beraz, haren araubide ekonomikoaren kudeaketan dago, eta horren nondik-norakoak zehaztu behar dira. Elkartasunaren eta finantza batasunaren printzipioak araubide ekonomiko horren taxuera politiko-juridikoaren azken arrazoia direla dirudi.

Horren haritik, arlo honetan dauden eginkizun edo eskumenak honela sailka litezke:

- Araugintzako eginkizunak.

- Betearazpen eginkizunak (EAEn Gizarte Segurantzaren aurrekontua egin eta onestea, diru bilketa kudeatzea borondatezko aldiari zein premiamendu aldiari, obra, zerbitzu eta horniduretako kontratuak egitea, ondare xedapenak egitea, gastuen aurrekontua kudeatzea eta Gizarte Segurantzaren obligazioak ordaintzea, kontu hartzeko eginkizuna betetzea).

Alabaina, betearazpen edo kudeaketa eginkizun horiek ere, euren estatutuaren bereganatuak dituzten autonomia erkidegoei dagozkien eginkizun horiek, modu murriztailean interpretatu ditu Konstituzio Auzitegiak. Kutxa batasunaren printzipioari dagokionez, hauxe zehaztu behar da:

1) "Kutxa batasunaren printzipioa" ez da printzipio konstituzionala. Printzipio hori 1978ko Konstituzioak aipatu ere ez du egiten, Gizarte Segurantzako erakundearen antolaketari eta kudeaketari buruz ematen dituen aginduetan.

Konstituzioaren ikuspuntutik ez dira behar bezain baliokideak, alde batetik, berdintasunaren, batasun ekonomiko-finantzarioaren eta elkartasun orokor edo osoaren ideiak eta, bestetik, "kutxa batasunaren" erregela. Azken horrek ez du balio halako ideia garrantzitsuen ordezkotzat formulazio gisa, ezta haien eduki juridiko-politikoaren azalbide egoki gisa ere. Are gutxiago erabili daiteke "kutxa batasunaren" erregela hiru ideia konstituzional horien esanahia erradikalizatzeko, 1978ko Konstituzioaren beste agindu batzuekin bateraezina den balioa emanez.

Hitz gutxitan, "kutxa batasunik" ez da ageri Konstituzioaren testuan, haren erregelak -haien zentzu naturalaren arabera- ez dira nahiko Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren funtsezko batasuna bermatzeko, eta ezin dira erabili indarrik gabe uzteko (antzu bihurtzeko) Konstituzioak berak gizarte babesaren arloko politikaren gaineko eskumenak Estatuko botere zentralen eta autonomoen artean banatzeari buruz egiten dituen aurreikuspenak.

2) Bere adiera tekniko hertsian, azken batean, "kutxa bakarraren" kontzeptua kontabilitateko kontzeptu hutsa da, Gizarte Segurantzako gastu eta sarrera zerbitzuen antolaketari eta haren finantzak administratzeko ezarritako prozedurei lotua.

Bigarren mailako eta aplikaziozko izaera hori da, zalantzarik gabe, Gizarte Segurantza antolatzeko printzipioen zerrendan ez agertzearen arrazoia.

3) Beraz, "kutxa batasuna" ezin da, ez juridikoki ez teknikoki, kontzeptu substantibotzat hartu, eta are gutxiago Gizarte Segurantzaren antolamendu ekonomiko-finantzarioaren abiaburuko elementutzat; bigarren mailako faktorea baino ez da, Gizarte Segurantzaren araubide ekonomiko-administratiboaren alderdietako baten adierazlea.

Administrazio eta kontabilitateko "kutxa bakarra" kontzeptuaren balio objektiboak eta aldakortasun eta moldakortasun teknikoak ez lukete esku hartu behar, bigarren mailakoak direlako, lehen esan bezala, trabak jartzeko

Konstituzioak Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoan autonomia erkidegoek izan beharreko parte-hartze intentsiboari buruz aurreikusten duenari (149. artikulua) eta kudeaketa horren egitekoak, oro har, EAERI transferitu ahal izateari buruz aurreikusten duenari (18. artikulua eta Gernikako Estatutuaren bosgarren xedapen iragankorra).

4) “Kutxa batasuna”, Gizarte Segurantzaren arloko eskumenak EAERI transferitzeari buruz egiten ari den eztabaidan, Konstituzioaren aginduei eta Estatutuaren aurreikuspenei garrantzia kentzeko (edo ezerezean uzteko) faktore moduan erabiltzen da. Komeni da hori azpimarratzea. Gizarte Segurantzaren ekonomiaren funtsezko batasuna ez dago administrazioan edo kontabilitatean, finantzetan baino; elkartasun orokorra edo osoa ez da lortuko kontabilitate formula zehatzak aplikatuz, ezta administrazio prozesu jakinei jarraituz ere. Aitzitik, hauek dira bideak: babes zamak zehaztu eta baliabide iturri guztien artean banatzea, eta haren onurak eskuratzeko eta mantentzeko sarrera sozial berdina.

Konstituzioan eta Estatutuan “kutxa bakarraren” aipamenik ez egoteak baieztatu egiten digu hark ez duela garrantzirik eztabaidaren ebazpenari begira. Are gehiago Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorrari erreparatzen badiogu; bertan “kutxa bakarrari” kontzeptu juridiko mugagabe gisa egiten zaio lekua, eta, jada esan den bezala, uler daiteke aipamen argia egiten zaiola kontabilitateko praktikan (publikoan zein pribatuan) izen orokor horren pean biltzen diren antolaketarako eta baliabide ekonomikoaren administrazioarako tekniken askotarikotasunari.

Gizarte Segurantzaren finantzek titular bakarra dute, baina ez administrazioa bakarra.

Laburbilduz, Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren gaineko eskumenari lotutako transferentzia honela egin behar litzateke:

1.- Bidea eman behar da, aurretik Insaludekin eta Inersorekin egin zen moduan, aztertzeko ea komeni den lehen fase batean hitzartzea Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren eginkizun eta zerbitzuen eskualdaketak (INSSren eginkizunei enpresen inskripzioa eta langileen afiliazioa, altak eta bajak gehituz), Itsasoko Gizarte Institutuarenak eta lan istripuetarako ugazaben mutualitateen eta enpresa laguntzaileen kontrola, hurrengo negoziazio baterako utzirik Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren eginkizunak eta zerbitzuak.

2.- Araututako prestazio ekonomiko horietarako aurrekontu partidak handitu daitekeen gastu errealtzat agertuko dira Estatuko Gizarte Segurantzarako Aurrekontu Orokorretan, Estatu osorako.

3.- Hitzarmenak mekanismo arin eta automatizatuak aurreikusi behar ditu, hala ere, prestazioen ordainketan itogunerik izan ez dadin, behin EAEko erakunde kudeatzaileak haiek aitortutakoan, lehendik indarrean daudenez gainera.

Gizarte Segurantzaren antolamenduaren eta kudeaketaren esparruan, honako printzipio hauek bete behar lirateke:

1.- EAERen ekimenak arazo gehienak konpon ditzake haren eskumenero lurralde eremuan. Eta berehala egin dezake, neurri batean behinik behin.

2.- EAEko Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ordezkotako agentzia autonomikoa sortzea, are transferentzien batzordeak gaiari buruzko erabakia hartu aurretik ere (giza baliabideen eta materialen eskualdaketak).

Horren oinarri juridiko nagusia Gernikako Estatutuaren 10. artikuluko 2. zenbakian dago, gure Estatutuaren 18. artikuluko 2. zenbakiko a) eta b) letrekin bat, eta Gizarte Segurantzako prestazio ekonomikoak (kotizazio gabeko pentsioak) kudeatzeko eskumenak edukitzearekin bat etorritik.

3.- Enpresen mutualitateek kudeaketan laguntzeko aukerak gehitzea (enpresen mutualitateek “istripu aseguruak” arloko eskumeneri eutsiko liekete behin-behinean, eta halaber euren gain hartuko lituzkete gaixotasun arruntetarako “aseguruak” -osasun prestazioak, zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak- eta pentsioak: baliaezintasun pentsioa eta biziraupen pentsioa).

Behin onetsirik, epe laburrera, Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketaren transferentzia, Gobernuaren arauketak eta tutoretzak berrikuntzak ekar litzakete lan istripuetarako eta lanbide gaixotasunetarako mutualitateentzat, eraginpeko eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoan dihardutenentzat.

4.- Laguntzaileen eta osagarrien jardura kontrolatu, zuzendu eta koordinatzeko eginkizunak agentzia autonomikoari esleitzea.

5.- Enpresen mutualitateei Gizarte Segurantzaren araubide libre osagarriak kudeatzeko aukera onartzea, lankidetzara araubidean euren gain hartutako Gizarte Segurantzara publikoko adar eta prestazio berberetan (hau da, istripu aseguruak, gaixotasun aseguruak eta pentsio aseguru partzialak). Neurri hori araugintzako esku-hartzearen bigarren fasean hartu behar litzateke; horren aurretik, Estatuko legeak erreformatu behar lirateke -gutxienerako erreforma eginez-, bidezkoak diren akordioaren arabera; eta

Laburbilduz,

Gizarte Segurantzako araubide publiko unibertsala, nahikoa eta ez-atzerakorra eduki daiteke eta eduki behar da.

Kontuan hartu behar dira Gizarte Segurantzako Europako sistema publikoen bilakabideak.

Bere osotasunean garatu behar da Toledoko Ituna delakoa (bereziki, ezkutuko ekonomiaren erregularizazioari eta iruzurraren kontrako borrokari dagokienez).

Oinarritzko gogoeta puntuak bete behar dira, Euskadik Gizarte Segurantza antolatu eta kudeatzeko lanetan parte hartze intentsiboa izan dezan.

Euskadin gizarte babesa erabat erakundetzea lortu behar dugu.

Gizarte Segurantzako sistema osagarri-libreak biziki sustatu behar dira, bereziki kontuan izanik irabazizkoak ez direnak eta, Euskadin, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak.

Gizarte Segurantzako sistemaren babes esparruan kontuan hartu behar da familia, berariazko babes esparru gisa (familian garatzen baitira elkartasunaren eta diruz ordaindu gabeko jarduera ekonomikoaren adibide nabarmenak), baita gure gizarteek nozitzen dituzten politika demografikoak ere.

Erretiroa hartzeko adina malgutzea, hura aurreratuz edo, funtsean, hura atzeratuz, ezinbestekoa da garai hauetan.

Sistemak banaketa-sistema izaten segitu behar du. Ez dira onargarriak hura kapitalizazio-sistema bihurtzeko proposamenak.

Gutxieneko pentsioen zenbatekoa igo behar da, hala kotizaziopeko pentsioena nola laguntzako pentsioena, harik eta benetako soldaten batez bestekoaren %60ra iritsi arte. Pentsioak maila honetara eraman behar dira: 750 euro hilean eta hamalau paga urtean.

Berehala ekin behar zaio Gernikako Autonomia Estatuaren 18. artikuluan eta V. xedapen iragankorrean EAerako aurreikusitako eskumenen gauzatze praktikoari.

## 6. Elkartasunaren gaineko gogoetak

Sortu zenetik, EAJ-PNV beti saiatu da Euskadirentzat aurrerapenean, justizian, bakean, askatasunean eta elkartasunean oinarritutako bizikidetzaren proiektua sustatzen lagunduko duten ildoak jarraitzen, horrekin guztiarekin euskal gizarteko eragile guztien erabateko batasuna eta integrazioa lortuko direlakoan. Izan ere, EAJ-PNVk beti izan du demokrazia bere oinarri ideologikoen printzipio nagusien artean; baina demokrazia ikuspegi global gisa harturik, gizarte bizitzaren alor guztiak bilduz, eta ez bakarrik alderdi partzialak. Horrela bide ematen da euskal gizarteak benetan eta eraginkortasunez parte har dezan bai arlo politiko-sozialean eta bai arlo ekonomikoan edo kulturean ere.

Proiektu nazional batek, izen hori mereziko badu, gizarte proiektua ekarri behar du berekin. EAJ-PNVren ahalegina beti egon da ideia horri loturik eta etorkizunean sendotu egin behar du bere apustua. Euskal Aberria ez da ideal lauso eta iheskorra, aitzitik, historiako une bakoitzean mamitzen da gizaki zehatzengan, euskal herritarrengan, hezur-haragizko pertsonengan. Pertsona horiek nazio kolektibitate handi bateko kide sentitu daitezke eta euren nortasunaren alde borroka egin, baina, horrez gainera, badituzte interes pribatuak, bizitza proiektu pertsonalak, ongizatea eta autorrealizazioa lortzeko gogoak, barru-barrukoa eta zilegizkoa.

Programa honetako lan arloetan (Gizarte ekintza, Lana eta Gizarte Segurantza, Osasuna eta osasun zerbitzuak, Kontsumitzaileen babesa, Etxebizitza) ekintza politikoaren eremu desberdinak islatzen dira, eta horietan abertzaletasunak jarduteko lerro *berritzailea eta berezia* topatzen du.

Elkartasunezko proiektu bat aurrera eramateko lerro autonomo hori beste arlo batzuetan gauzatzen da. Eusko Jaurlaritza izan zen lehena, Estatuaren barruan, talderik behartsuenentzat soldata soziala ezartzen. Garapenerako lankidetzaren hainbat euskal erakunde bultzaturik, Europa osoan eredu garriak diren parametroetara iritsi da. Horrelako eremu batean ere, abertzaletasunak bere marka berezia uzten du: arretoa berezia, nazioarteko ingurunean, estatu totalitario handiek zapalduko herriei.



Gero eta gehiago zabaltzen ari dira elkertasunik gabeko kultura sozial eta ekonomikoa, bazterkeria egoerak eta baztertutako taldeak oso erraz sortzen dituen liberalismo erasokorra. Abertzaletasunak, defendatzen duen elkertasunezko proiektuaren arabera, jakin badaki behar-beharrezkoa dela pertsona guztientzako gutxieneko estaldura eta laguntza mailai eustea. Hori horrela da beti, edozein direla ere, unean uneko baldintza ekonomikoaren arabera, hautatu beharreko estrategia politikoa eta hartu beharreko neurriak. Garrantzitsuena zera da, ez dela inola ere jausi behar zenbait sektorek gaur egun hauspotzen ari diren tentazioan: gizarte arloan denak balio duela eta gizaki oro bere burua defendatzeko gauza dela sinestea, eta ia-ia gauza jakintzat ematea behartsuak ez direla behartsu, ganorarik gabeko pertsonak baino.

Euskal abertzaletasunak hasiera-hasieratik ezaugarri izan duen ikusmolde humanistaren argitan, halako planteamenduak zentzugabekeriatzat hartu behar dira. Aurka egin behar diogu, beti egin dugun bezala, gizabanakoa estutu eta mugatzen duen Estatuaren ikuskera totalitarioari, baina baita gizarte errealtatea hobetzen batera ahalegindu gabe hura *inguratu* besterik egiten ez duen Estuari ere. Gure ideologian, gizarte bizitzaren edozein arlotan pertsonak izan dezaketen ekimenaren errespetua (eta sostengua) bezain sendo sustraiturik dago etorkizunerantz aurrera egiten ari den kolektibitate baten ahalegin orokorrari denok egin behar diogun ekarpena.

## 6.1. Estatu soziala sendotzeko bideak

Definizioz, ekintza politikoak esan nahi du helburuak ezarri behar direla baliabide mugatuaren arabera, eta 20 urteko autogobernuak bermatu egiten du euskal erakundeek badutela gaitasuna inguruabar horiei egokitzeko. Gauden bidegurutzean, gizarte ongizatearen maila egokiak bermatu behar dira, baldintza ekonomikoak aldekoak izan ez arren. Horretarako, beste gauza batzuen artean, eskakizun maila handia ezarri behar diogu geure buruari, ditugun baliabideak kudeatzeko orduan, eta behar diren zuzenketa neurriak hartu behar ditugu gizarte estaldura nahikoa ematen jarraitzeko. Horrela saihestuko dira bai irizpide demagogikoak eta bai sektore baztertuen edo behartsuen iraupenaren aurreko etsipena ere.

Aurrean dugun egitekoa da zenbait kultur kontzeptu aldatzea, gure gizartearen sendo erroturik baitaude, botere publikoek herritarrei begira duten eginkizuna dela eta.

Etorkizunerako politika egokiak honako ekintza hauek bilduko lituzke:

Gizarte prestazioak premia egoeraren kontzeptuari egokitzea; horrela eutsi egingo zaie aurrekontuen oparotasun uneetan indarra hartzen duten zenbait gastu motari, ez datozelako bat benetako beharrezko fisiko, ekonomiko edo kultureko egoerekin.

Bereziki lantzea, ez bakarrik orain arte sistemaren arreta osoa bereganatu duten neurri konpontzaileak, baizik eta prebentzio neurriak ere bai.

Gizarte zerbitzuen baterako finantzaketarako aukera aztertzea, beste zerbitzu publiko batzuetan gertatzen den bezala.

Lan horietan ari diren langileen prestakuntzari eta birziklapenari ekitea, izan ere, baliabideak hobetzea, aurrerantzean, funtsezkoa izango baita sistemaren iraupenerako.

Behar adinako garrantzia ematea plangintzari eta prospektiba-azterketei. Aurreikuspena ezinbestekoa izango da etorkizunean, finantza-kolapsoak saihesteko.

Herritarrei informazio egokia ematea, zerbitzuak eskuratzeko aukera-berdintasuna bermatzeko bide bakarra da-eta.

Osotasun irizpideari jarraituz lan egitea, alegia, gizarte zerbitzuei ikuspegi zabal batetik begiratzea, eta justizia, etxebizitza, gizarte babesa eta beste hainbat sektore giltzarritzat hartzea Ongizatearen Estatu eratzeko, esparru honen barruko beste jarduera ohikoago batzuekin batera, hala nola gizarte ekintza edo osasun zerbitzuak.

Gizarteak berak beharrezko hauek asetzeko sortu duen sare informala sostengatzea (zaintzaileak, elkarteak, ongintza erakundeak etab.), haien izaera osagarria sendotuz eta esparru publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzat bilatuz.

Eta, zer esanik ez, kudeaketa hobetzea, baliabideen erabilera optimizatuz eta profesionaltasun eta eraginkortasun maila handiagoak eskatuz zerbitzu publikoetan esku hartzen duten giza elementu guztiei.

## 6.2. Mendekotasunaren arazoa

Gaur egun, eta zalantzarik gabe hurrengo urteetan, herrialde garatuetakoz gizarte eta osasun arloetako politiken arduradunek konpondu beharreko arazo nagusia mendeko pertsonen laguntza-beharrezko gehikuntza da, hots, mendekotasuna edo, beste modu batera esanda, eguneroko bizitzan moldatzeko nola edo halako laguntza behar duten

pertsonen inguruko arazoak. Horri aurre egiteko berriz aztertu behar dira zerbitzuak eman, kudeatu eta finantzatzeko sistemak; bai arazoaren konplexutasunagatik eta bai pertsonengan, gizartean, osasun arloan oro har, ekonomian eta abarretan dituen ondorioengatik. Laguntza maila desberdinetan jardun behar da eta erantzun orokorra, integratzailea, koordinatua eta etengabea eman behar da.

Mendekotasun hitza gero eta sarriago azaltzen da hainbat profesionalen hiztegiatan. Funtsezko hiru kontzeptu erabil daitezke mendekotasuna zer den ulertzeko: dimentsio-aniztasuna, kausa-aniztasuna eta funtzio-aniztasuna.

Dimentsio-aniztasunaren ideiak gogora ekartzen digu mendekotasun nozioak askotariko domeinuak dituela: mentala, fisikoa, ekonomikoa etab., baita aurreko horien arteko edozein konbinazio ere. Domeinu horiek maila desberdinetatik azter daitezke, zein motatako hurbilketa teoriko eta metodologikoa aplikatzen den: jokabidearena, pertsonala, egoerarena, pertsonen arteko mendekotasunarena etab. Ikuspegi hori zuzena bada, ondorio gisa baieztatu behar da mendekotasuna ez dela alderdi bakarreko arazoa, konfigurazio bakarra duena.

Kausa-aniztasunaren ideia aztertzen badugu, mendekotasuna ez dela zahartasunaren sinonimo, horra lehenengo ondorio aipagarria. Adineko pertsona guztiak ez dira mendekoak eta, gainera, badira zaharrak ez diren pertsona mendekoak. Bai eragile biologikoei bai eragile soziokultural, ekonomiko eta ingurumenekoek badute zer esanik mendekotasunaren garapenean eta iraupenean. Era berean, baliabide ekonomikorik ez izateak, esaterako, mendekotasun egoerak eragin ditzake. Beste horrenbeste esan daiteke eragile psikologikoei buruz. Oro har, faktore horiek guztiek, batera edo bereiz, mendekotasuna sor dezakete.

Maila funtzionalean, eta mendebaldeko gizarteetan mendekotasuna berez gauza negatibotzat jotzen denez gero, ez du inola zertan izan funtzio bakarra, inola ere ez, ezta kontzeptu honi batzuetan egotzen zaion itzulezintasun izaera orokorra ere.

Bada gako-ideia bat, eta berriro ere jaso nahi da: mendekotasuna arazo konplexua da, hainbat dimentsio, kausa eta funtzio dituen, eta nekez murriztu daiteke konfigurazio bakar batera.

Beraz, mendekotasunaren inguruko esku-hartzeak konfigurazio desberdin horiei egin behar diete aurre. Beharrezkoa da laguntza ematen duten gizarte eta osasun zerbitzuen funtzionamendu-ereduak aldatzea, baterako kudeaketa eta finantzaketa formulak abian jarriz gizarte zerbitzuen sistemaren eta osasun sistemaren aldetik, edo errotiko aldaketa ekarriko duen eredu kontzeptual baten bitartez, eta gainditu egin behar da gizarte zerbitzuen eta osasun zerbitzuen arteko deribazioaren/egozpenaren kultura modu hori, zeren eta, baliabideen urritasunagatik agian, eta zenbaitetan motibaziorik ezagatik, kultura hori sakon sustraiturik baitago zerbitzuetako arduradun eta profesionalen artean. Horren ordez, laguntza osoaren kultura garatu behar da.

Zergatik ez pentsatu, esaterako, mendeko pertsonen mugikortasunerako, higienerako, elikadurarako, jaikitze, lotara joateko, txukuntzeko eta abarretarako behar dituzten laguntzak ez direla bakarrak. Harremanak, aisia, gizarte eta kultur bizitzan parte hartzea etab., horiek ere garrantzitsuak dira beharbada. Ez ote da izango ikuskera paternalistek, ostalaritzakoek, klinikoei, oraindik ere teknikari eta profesionalen eguneroko lana kutsatzen dutela? Ba ote du inork gogoan mendekotasun egoeran dauden pertsonen eta haien familien bizi kalitatea?

### **6.3. Mendekotasunari aurre egiteko proposamen zehatzak**

EAJ-PNVk lehenetsutako ekintza lerro hauek proposatzen ditu mendekotasunaren arazoari aurre egiteko:

- Familia zaintzaileei laguntzeko programak sustatzea.
- Zaurkotasun egoeran dauden adinekoei laguntzeko programak.
- Boluntarioen lana sustatzea.
- Mendeko pertsonentzako egoitzetako plazen eskaintza hobetzea.
- Pentsioaren osagarria ematea hirugarren pertsona bati laguntzeagatik. Epe ertainean osagarri horren kostua askoz txikiagoa izango litzateke gizarte eta osasun zerbitzu eta ekipamenduen erabilera baino. Gainera, adineko pertsonen eta familia zaintzaile askoren nahia beteko litzateke, pertsona bakoitza bere komunitatearen barruan zahartzea, alegia.
- Mendekotasun egoerei buelta emateko ekintzak eta esku-hartzeak egitea, ahal denean.
- Laguntzarako gizarte eta osasun zerbitzu egokiak prestatzea, mendekotasun egoerak askotarikoak direla eta mendekotasuna kontzeptu ebolutiboa dela onartzen dutenak.

- Mendeko pertsonentzako baliabide berritzaileak abian jartzea (izan badira), haien bizi kalitatea hobetuz eta aldi berean kostu ekonomikoak txikituz.
- Arrazionalizazio, berrantolatze eta hobekuntza neurriak. Besteak beste, honako hauek:
  - Zerbitzu eta ekipamenduen erabilera zorrotz egokitzea, erabiltzailearen ezaugarrien arabera.
  - Programetan sartzeko baremoak eta erabiltzaileen profilak eguneratu eta hobetzea.
  - Zentro publikoetan, euren kabuz moldatzen diren adinekoentzat dauden plaza guztiak mendeko pertsonentzako plaza bihurtzea, mendekotasun mailen arabera.
  - Kudeatzeko irizpideak hobetzea.
  - Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako egoitzetan, ordainketa portzentajea berrantolatzea eta beste neurri osagarri batzuk hartzea.
  - Gutxieneko programazio-irizpideak (eskaini beharreko laguntza mota, besteak beste) eta sektore publikoaren eta pribatuaren antolamendua.

Mendekotasunaren esparruan, salatu egin behar dugu Gorte Nagusiek duela gutxi onetsi duten Mendekotasun Legea. Lege horrek urratu egiten du Estatuko legegileak autonomia erkidegoei soilik dagokien gai bat arautzeko duen gaikuntza; zeharkako eskumen-tituluak erabiltzen ditu, hala nola Konstituzioaren 149.1.1 artikuluan aurreikusitakoa, herritarren arteko berdintasun baldintzen bermatzailea, baina Estatuaren legegintzako jarduketa legitimatzen ez duena, eta azkenik, lege horrek ez du hobetzen Euskadin mendeko pertsonak babesteko dagoen sistema, aitzitik, murriztu egiten du, eta zalantza handiak sortzen ditu, prospektiba-azterketa batean hura aplikagarria izango ote litzatekeen.

## 6.4. Gizarte bazterketa

Gizarte bazterketa erronka bat da gizarte garatuentzat. Egiturazko izaera du, eta beraren eraginez, biztanleriaren parte garrantzitsu bat bizitza sozial eta ekonomikotik at uzten duen mekanismo bat finkatzen da gizarte gorputzean.

Gizarte bazterketaren egiturazko izaera horri aurre egiteko, gure iritziz, irtenbide positiboa ematen saiatuko den borroka-estrategia politikoa diseinatu behar da. Horretarako, lehenengo eta behin, irakurketa sakona egin behar da gizarte bazterketaren zergatikoak bilatzeko, eta bigarrenik diagnostikoa ezarri behar da, txirotasun eta bazterkeria guneak errotik kentzeko jarduketarik egokiena definituko duena.

Diagnostikoa ikusi ondoren, definitu behar litzateke zenbaterainoko konpromisoa hartzeko prest gauden gizarte bazterketaren aurkako borrokaren erronkaren aurrean, eta horretarako gizarteak berak esku hartu behar luke estrategiaren definizioan.

Baztertuak gizarteratzeko politikak definitzeko lanak, ostera, hainbat eta hainbat maila eta modalitate izan ditzake, legegintzako, antolamendu arloko edo finantzen arloko neurrien aplikaziotik hasi eta bazterkeriaren eragileen iturrietara joko ez duten sistema batzuen ezarpen hutseraino.

Gizabanakoaren hobetze eta antolatze maila jakin batzuei bakarrik erantzuna emateko edozein saiok (alfabetatzeko eta are lanbide prestakuntza eta birziklapenerako aukera gehiago ematea, baina alderdi garestienak landu gabe, hala nola etxebizitzaren arloa edo pertsona aktiboen lan merkatuko bazterketa, herri osoak bere gain hartutako balio eskalaren benetako berrikuspenaren eskakizuna barne), gehienez ere, gizarteratze esperientzia zehatzak abiarazi eta lantzea ekar dezake emaitza gisa, eta halako esperientzien bidez nekez pentsa daiteke bazterketaren aurkako borrokak ondorio orokor eta iraunkorrik sortuko duenik gizartean.

Funtsean, lau kapitulutan ageri dira nabariaren gizartearen hutsune larrienak, baztertuenen artean detektaturiko egoerak sorrarazten dituztenak. Lau kapitulu horiek lanaren merkatua, osasuna, etxebizitza eta eskola dira.

**Lanaren merkatua.**- Azkenaldian ahaleginik handienak jaso dituen arloa izan arren, garbi ageri da oraingoz ez dagoela formularik arlo honetan dauden akatsak maila onargarrian konpontzeko. Langabeziak hortxe dirau, eta zenbait sektoretan hazten ari da.

**Osasuna.**- Elementu honek ere garrantzi handia du bazterketa azkartzeko, batez ere, beste arrazoi eta inguruabar batzuegatik dagoeneko bazterturik dauden pertsonen kasuan. Sarri askotan, osasunik ez izatea oztopo da zenbait jarduera egiteko, edo are gehiago, lanpostu bat lortzeko bidea ixten du. Halako egoeran aurkitzen dira IHESA duten pertsonak, buru-gaixoak edo droga-mendekoak.

**Etxebizitza.-** Gauza jakina da pertsona askok eta askok beharizan larriak dituztela euren inguruneari dagokionez. Batzuek ez dute bizilekurik, senitarteko eta lagunekin bizi dira; beste batzuek laguntza zentroetan ematen dute gaua; harako haiek etxebizitza guztiz hondatuta daukate, hezetasunekin eta oinarri-oinarrizko zerbitzurik gabe; kasu askotan, alojera, argia eta ura ordaintzeko behar diren baliabide ekonomikoak ere falta dira.

**Eskola.-** Baztertutako pertsona eta familia gehienek ez dute behar adinako prestakuntzarik eta lanbide kualifikaziorik lan merkatuko erronkei aurre egiteko. Ondorioz, pertsona horiek ikusten dute gainerako jendearen aldean kulturarik ez dutela eta nekez egin ahalko dietela aurre etorkizunak ekarriko dizkien egoerei, edozein motatakoak direla ere.

## 6.5. Minusbaliotasunak

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1993. urtean ebazpen historiko bat onetsi zuen: "Ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera-berdintasunari buruzko arau bateratuak". Arau horiek 1982ko Mundu Ekintzako Programaren ildotik prestatu ziren, eta Giza Eskubideen Nazioarteko Gutuna hartu zuten oinarri moral eta politikotzat.

2006ko azaroaren 13an, berriz, Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa onetsi zen, Giza Eskubideetarako Batzordearen eta Gizarte Garapenerako Batzordearen lanaren emaitza.

Konbentzio horiek eratzen dute EAJ-PNVren programa, minusbaliotasun eta ezgaitasun arazoei dagokienez.

Ezgaitasunen bat duen pertsonaren edo pertsona minusbaliatuaren kontzeptua termino generiko gisa kokatzeko, Osasunaren Mundu Erakundeak definitu dituen kontzeptu teknikoak hartu behar dira abiapuntutzat.

**Urritasuna:** egitura edo funtzio psikologiko edo fisiologikoren baten galera edo anormaltasuna. Urritasun mota berak kausa desberdinak izan ditzake (jatorri traumatologikoa, neurologikoa etab.).

**Ezgaitasuna:** gizaki batentzat normaltzat jotzen den jardueraren bat egiteko gaitasuna murriztuta izatea edo falta izatea. Urritasunak eragindako desbideraketa funtzionala islatzen du.

**Minusbaliotasuna:** gizabanako batek bere ezgaitasun edo urritasunaren ondorioz jasaten duen desabantaila egoera, bere gizarte ingurunean adin eta sexu berekoentzat normaltzat jotzen den eginkizuna betetzea erabat edo neurri batean eragozten diona. Minusbaliotasun kontzeptuari balio garrantzitsua ematen dio faktore sozialak; izan ere, haren balorazioa subjektuak inguruan duen gizartearen arabera da, hots, pertsona bera minusbaliatua izan daiteke gizarte batean eta normala beste batean. Kontzeptu soziala da, gizabanakoak egin dezakeenaren eta taldeak harengandik espero duenaren arteko aldeari erreparatzen diolako.

Hala, bada, urritasuna, ezgaitasuna eta minusbaliotasuna elkarri lotuta daude, arlo biomedikotik arlo sozialera doan sekuentzia batean. Minusbaliotasunari historian zehar eman zaion erantzun politikoa gizarte-konpentsazioko neurrietan oinarritu izan da, ongintzaren bitartez eta gizartetik kanpo. Horrek bazterketaren arazoa areagotu du.

Izan ere, betidanik prozesu ekonomiko eta sozialak normaltasunaren gainean eraiki izan dira, herritar arruntaren kontzeptuari jarraituz, eta ezgaitasunen bat duten pertsonak bazter utzi dira besterik gabe.

Aukera-berdintasunaren eta helburu horretara jotzen duten politiken gaineko edozein gogoetak gizarteari eragiten dio eta, ondorioz, baita gizartea ordezkatzeko duten gobernu eta administrazioei ere; hauek oinarritzko neurriak hartu behar dituzte minusbaliotasunaren ondoriozko bazterketa eta bereizkeria deuseztatzeko. Ildo horretan, eta kontuan izanik gizarte bakoitzak bere esparru kultural eta sozial berezia duela, helburu horri erantzuteko modua aldatu egingo da gizarte batetik bestera.

Nolanahi ere, egungo gizartea herritar arruntan beharizanen arabera antolatzen da, hots, minusbaliotasunik ez duen jendearen beharizanen arabera, eta hortik atera daiteke herritar askok ez dituztela eskura gehiengoak dituen eskubide eta aukera berberak. Eskubide eta aukera horiek honakoak dira, laburbilduz:

**Hezkuntza:** integrazioan egindako ahaleginak gorabehera, oraindik ere arazoak daude heziketa akademiko egokia lortzeko orduan.

**Enplegua:** minusbaliotasunen bat duten pertsonen langabezia tasa biztanleriaren batez bestekoa baino hiru aldiz handiagoa da.

**Mugikortasuna:** eraikinetan eta kalean dauden oztopoak eta komunikazio oztopoak oraindik ere gaindiezinak dira ukitutako biztanleetako askorentzat, eta jendeak erabili ohi dituen zerbitzuez baliatzea eragozten diete.

**Etxebizitza:** etxebizitza egokituak urriak dira eta egin beharreko egokitzapena garestia da.

**Gizarte babeserako sistema ekonomikoak:** minusbaliatuetako asko pobreziaren atarian bizi dira, gizarte laguntzarako gutxieneko sistemak ez direlako nahiko. Horren haritik aitortu beharra dago ezgaitasunen bat duten pertsonen kostu gehigarriak eta etengabeko beharrezan biztanleriaren batez bestekoa baino handiagoak direla.

Bistan denez, gure gizarteak ahalegin handia egin du minusbaliotasunen bat duten pertsonen laguntzeko, administrazio publikoak aspaldiko urte hauetan agertu duen sentikortasunari esker. Gobernu kanpoko erakundeek etengabeko laguntza eman dute. Erakunde horiek 60ko eta 70ko hamarkadetan sortu ziren, borondatezko lana egiteko ukitutako kolektiboen alde.

Gaur egun, ostera, ondorioztatu daiteke minusbaliotasunen sektoreak bide luzea egin behar duela oraindik, aukera-berdintasuna lortu nahi badu. EAJ-PNVren iritziz, minusbaliotasunen arloko erreferentzia-esparruak hiru ardatz edo helburu estrategiko izan behar lituzke:

- 1.- Bazterketa eragiten duten kausak antzeman eta deuseztatzea ukitutako pertsonaren gizarte eta familia ingurunean, bere inguru naturaletik banandu gabe minusbaliotasuna orekatzeko.
- 2.- Berriazko prestazio eta zerbitzuen sarea sortzea ezgaitasuna duten zenbait pertsonarentzat, alegia, euren ezaugarri bereziengatik ingurune hurbilenean baliabiderik ez duten pertsonentzat edo euren gutxiagotasun egoera "konpontzeko" berriazko neurrien aplikazioaren beharra duten horientzat.
- 3.- Aukera-berdintasunaren printzipioaren aldeko neurriak hartu aurretik, ezgaitasunen bat duen pertsona komunitateak oro har dituen zerbitzuak eskuratu ahal izan ditzan lortu behar da, esparru soziala, hezkuntzako, ekonomikoa, kulturala eta abarrekokoak tartean.

EAJ-PNVren ustez, diseinaturiko helburuak lortzeko betearazpen-neurri azpimarragarrienak honakoak lirateke:

- Aurreikusitako baliabideak oinarrizko zerbitzuetan sartzea eta aprobetxatzea, etxez etxeko laguntzen prestazioak, aisia eta astialdiko sistemak eta etxebizitza egokituaren sustapenak handituz eta, halaber, ezgaitasunen bat duten pertsonentzako plazan erreserbak handituz adinekoen egoitzetan.
- Minusbaliotasuna duten pertsonen edozein prestazio eta zerbitzu komunitario eskuratzeko erraztasunak ematea, oztopo arkitektonikoak eta kaleko oztopoak kenduz eta biztanle guztiei irisgarritasun arloko legezko neurriak bete behar direla ohartaraziz.
- Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako enplegua sustatzea, haiek gizarteratzeko giltzarri gisa, legegintzako neurriak hartzea bereizkeriaren kontra borroka egiteko, minusbaliotasuna duten pertsonen sustapena erraztea, enplegu arrunta sustatzea edo, halakorik ezean, enplegu babestua sostengatzea.
- Gizarte prestazioak eta beste laguntza-neurri batzuk bermatzea etengabe, kontuan izanik minusbaliotasuna duen pertsonak bere bizi zikloan jasaten dituela ondorioak, eta eguneroko jardueretan herritar arruntak baino kostu gehiago dituela.
- Parte-hartzearen printzipioak bermatzea, ezgaitasunen bat duten pertsonak ordezkatzeko dituzten gobernu kanpoko erakundearen sustapenaren eta garapenaren bitartez.
- Erakunde publikoen arteko erakunde-esparruak antolatzea (osasuna, lana, hezkuntza, etxebizitza, hirigintza etab.), zerbitzu komunitarioen esku-hartzeak koordinatzeko, aukera-berdintasunezko giroan.

## 6.6. Familiaren babesa

Familia politikaren babesa, gaur egun, Euskadin zein Estatuan, prestazioetan gauzatzen da:

### Ekonomikoak:

- Karguko seme-alabengatik.
- Amatasunagatik.
- Heriotza eta biziraupenagatik: heriotzagatiko sorospena.

### Zerbitzuak:

- Amatasunagatik laguntza.
- Familia-eskubide eratorriengatik osasun laguntza.



Estatuko sistemak familiarentzako gizarte babesaren urritasuna du ezaugarri (deigarria da 2 seme-alaba dituzten familientzako babesen arteko aldea: batez besteko soldataren %3 Estatuan, %20 Belgikan, %12 Alemanian, %28 Luxenburgon, %10 Herbehereetan, %9 Erresuma Batuan).

Familia, kontzeptu gisa, ez da sistemaren babesaren berezko hartzailetzat jotzen, ez dago familiaren aldeko politikarik, ez dira jaiotzak sustatzen. Horren guztiaren ondorioz, Euskadin eta Estatuan jaiotzen diren umeen kopuruaren murrizketak eta biztanleriaren zahartzeak zalantza larriak sortu dituzte pentsio sistemaren etorkizuneko bideragarritasunari buruz.

Familia da giza biziaren sorguneen artean nagusia. Gizarteratze gune nagusia ere bada -umeez gurasoekin identifikatuz ikasten dute gizartean bizitzen-, eta oinarrizko erreferentzia gunea da gizakiaren bizi ziklo osoan zehar pertsona heltzeko. Familia, beraz, indarra duen gizarte antolamenduaren benetako zimendua da, eta hala ere, uste zabaldua dirudi familiari ez zaiela beti behar den besteko arreta eskaintzen botere publikoen aldetik.

Bestalde, ezin da ahaztu gaur egungo familiek, oro har, eta euskal familiek, bereziki, garrantzi handiko aldaketa batzuk izan dituztela euren izaeran eta gizartean betetzen duten eginkizunean. Gizartearen eraginpean eta inguruko aldaketen mende dagoen erakundea izanik, familiak mota guztietako eraginak barneratzen ditu, eta modu horretan, gizarte errealitatearen fluxu desberdinak elkartzen eta gurutzatzen diren gunea bihurtzen da. Hala, familiaren eginkizunak bateragarriak dira honako hauekin:

1. **Hezkuntza sistema.** Familiaren ardura dira lehen mailako gizarteratzea, bigarren mailako gizarteratzearen alderdietako batzuk eta hezkuntza; izan ere, familia ingurunea eskola jardueren euskarria eta indargarria da.

2. **Osasun sistema.** Osasuna zaintzeko laguntza, prebentziotik hasi eta sendaketaraino, etxean ematen da, edo etxetik kanpo baina familiak esku hartuta. Familiak laguntzen dio gaixoari ospitaleratzen denean, eta berak egiten dizkio osasun sistema erabiltzeko egin beharreko kudeaketak.

3. **Gizarte laguntzako eta laguntza pertsonaleko zerbitzuak,** batez ere mendekotasuna duten pertsonak (umeez, gaixoak eta zaharrak) zaintzeari dagokionez, neurri batean baino ez dituzte estaltzen botere publikoek.

4. **Ekoiaren sistema.** Ondasun eta zerbitzuen zati handi bat ez dator merkatutik, etxeko lanetik baino. Hain zuzen ere, salgaietariko asko, bereziki elikagaiak, etxean landu egin behar dira.

5. **Gizarte kontrolleko mekanismoak.** Baldin eta, alde batetik, delituzko ekintzak, batez ere gazteak tartean direnean, familia egoera desegituratuekin lotura dutela onartzen bada, familiaren eta ordena sozialaren arteko loturaren aitorpentzat hartu behar da hori.

Hori guztia kontuan izanik, aitortu egin behar da etxeak eta familiak berebiziko garrantzia dutela, euren modalitate guztietan, ez bakarrik pertsonentzat, baita gizarte sistema osoaren funtzionamendurako ere, oro har.

Familien gaineko edozein esku-hartze politiko egin aurretik ezinbestez hartu behar da kontuan emakumeek gizartean jasaten duten desberdintasun egoera, eta aldi berean baieztatu behar da pertsona aske eta berdinek osatutako gizarte batean bizi garela. Ez da batere zaila pertsonen zainketaekin zerikusia duten egoera oraindik konpondu gabeak aurkitzea: umea eduki ahal izatea lanpostua galtzeko beldurrik gabe, etxeko lanak banatzea, adineko pertsonen beharriaz jaramon egin ahal izatea, euren bizitzaren amaieran lagundu ahal izatea, ordutegiak berregituratzea umeez zaindu ahal izateko, eta abar; horiek guztiak gure bizi kalitatearen adierazleak dira, eta gizarte demokratiko batean ezin zaizkio ia osorik egotzi kolektibo bakar bati, gaur egiten den moduan: familia ardurak dituzten emakume helduei, hain zuzen ere.

Ardurak emakumeen eta gizonen artean banatzea, EAJ-PNVren iritziz, gizarte eredu solidarioago baterantz aurrera egitea da. Eta gizarte eredu horrek Estatu laguntza-emaitza erroka eta beharrian berriak sortuko dizkio, bai, baina baita enplegu sorgune berriak ere.

Illo horretan, nahiz eta, emakumezkoen eta gizonzkoen portaera eta jokabideen gaineko hainbat azterlanek erakusten dutenez, familia eta lanbide arduen banaketari buruzko jarrera eta jokabide tradizionalak bere horretan iraun, aldi berean, eta oraindik ere jende gutxiengan, berdintasunetik hurbilago dauden harreman ereduak azaleratzen ari dira: historikoki gizonzkoek edo emakumezkoek, baina ez biek, ordezkatu izan dituzten espazio, jardura eta balioak modu malguagoan partekatzen dituzte orain batzuek zein besteek. Joera horiek indartu egin beharko dira, belaunaldi berrien itxaropenei erantzun eta familia gatazkak saihestu nahi baditugu.

Azkenik, aipatu behar da familia eredu asoziatiboetara igarotzeko bidean Administrazioak protagonismo handiagoa behar duela, desberdintasun egoeran dauden pertsonen zuzendutako konpentsazio neurriak sustatzeko, aurkezten zaizkien eskubideak eta betebeharrak aukera berdinekin erabili eta bete ahal izan ditzaten. Badira pobrezia-erako sentikorrak diren talde sozialak. Fenomeno horrek ezinbestez eskatzen du konpentsazio mekanismoak antolatzea, gehien-gehienetan euren familien mantenuaren ardura dutenentzat.

## 6.7. Etorkizuneko politikak adineko pertsonen esparruan

Adineko pertsonekin egin beharreko esku-hartzeak laguntza osoaren kulturaren garatu behar dira, aintzat hartuta, dagokien garrantziarekin, komunikaziorako laguntzak, aisia, gizarte eta kultur bizitzaren parte hartzea eta abar, baita, horiekin batera, guztiek onartutako beste laguntza batzuk ere: mugikortasunerako, higienerako, elikadurarako, jaikitze, lotara joateko edo txukuntzeko mendekotasuna duten pertsonentzako laguntzak.

Etorkizunean gizarte zerbitzuen esku-hartzeaz hitz egiteak esan nahi du beharriaz ekin aurretik haien gaineko eskumenak koordinatu behar direla, bai osasunaren errealitatearen gainean eta bai gizarte errealitatearen gainean ere.

Esan nahi du, halaber, prebentzio programak garatu behar direla mendekotasunari aurrea hartzeko, eta beste programa batzuk garatu behar direla adineko pertsonen laguntza emateko eta senitarteko zaintzaileei eta boluntarioei sostengua emateko; alegia, mendekotasunen agerpena ekidin edo atzeratzea helburu duten esku-hartzeak sustatu eta, behar denean, sostengu eta jarduketa neurri egokiak antolatu behar direla.

Programa eta esku-hartze horiek, behar den laguntza integralaren testuinguruan, edukia ematen diete Gizarte Zerbitzuei buruzko egungo Legearen normalizazio, pertsonalizazio eta integrazio printzipioei, eta, EAJ-PNVren iritziz, lehenetsutako ekintza lerro batzuk behar dituzte; horien artean honako hauek azpimarratu behar dira:

- Prebentzio programak garatzea, biztanleria orokorarentzat sustatzen diren barruan, halakorik bada, biztanle talde honen ezaugarri bereziekin.
- Hauskortasun egoeran dauden adineko pertsonen, senitarteko zaintzaileei eta boluntarioei sostengua emateko programak bultzatzea, prestakuntza, laguntza teknikoak eta adineko pertsonen euren etxetan iraun ahal izateko zerbitzuak indartuz.
- Mendekotasuna duten adineko pertsonak zaindu edo haiei laguntza emateagatik laguntza ekonomikoak ezartzea, pentsioen osagarrien bidez edo zergak arinduz.
- Mendeko pertsonentzako ordezkari baliabideak garatzea, kostu ekonomiko txikiagoa dutenak, bizi kalitateari eutsiz.
- Etxean ezin geratu diren mendeko pertsonentzako egoitza zerbitzuak bermatzea.
- Gizarte eta osasun arloko eskumenak definitu eta koordinatzea, dauden zerbitzuak bikoiztu gabe mendekotasunei ekiteko.
- Kalitatea bermatzeko kontrol publiko zorrotza sustatzea, ekimen pribatuak lan garrantzitsua egiten baitu gizarte baliabideen sarean.

## 7. ETORKIZUNeko BELAUNALDIEKIN SOLIDARIOAK DIREN INGURUMEN POLITIKEN ALDE

EAJ-PNVk apustu sendoa egiten du etorkizuneko gizartearen alde. Gizarte horretan, garapena, aurrerapena, berrikuntza, lehia eta hazkundea, alde batetik, eta ingurumenaren zainketa, lehengoratzeko eta eraberritzea, bestetik, oreka arduratsu eta koherente baten bidez lotu behar dira.

Gaur egun erronka garrantzitsu bat dugu aurrean, inork ezin duena ukatu ez gutxietsi, baina ezta muturrera eramane ere: klima aldaketa.

EAJ-PNVk apustu egiten du etorkizuneko belaunaldiekiko elkartasunaren alde eta konpromisoa hartzen du gure atzetik etorriko direnei gizarte iraunkorra uzteko, eta ingurumena zaindu eta iraunaraztearekin bateragarriak diren kultura eta bizimodua.

Klima aldaketaren erronka handiari heltzeko, bultzatu behar diren gizarte ereduaren eta ongizate estatuaren aldeko apustu sendo eta arduratsua egin behar da. Eredu horretan, ingurumenaren babesaren eta garapen sozioekonomikoaren arteko oreka etengabea eta dinamikoa lortu behar da, une bakoitzean egokitzat jotzen diren baliabideak, mekanismoak eta tresnak erabiliz.

EAJ-PNVk apustu egiten du klima aldaketaren erronkari bermez eta eraginkortasunez heltzea ahalbidetuko duten jarduketan zeharkakotasuna sustatzeko. Beraz, honako arlo hauek bereziki landu behar dira:

- **Azpiegiturak eta garraioa,**
- **Etxebizitza,**
- **Energia politika,**
- **Industria politika,**
- **Lurraren erabilera eta kudeaketa,**
- **Hondakinen kudeaketa,**
- **Naturguneen babesa eta baliabide naturalen kudeaketa,**
- **Ingurumen arloko hezkuntza eta erantzukizuna,**
- **Europako zuzentarauak: norainokoa eta edukiak,**
- **Nazioarteko konpromiso eta protokoloak.**

## **7.1. Azpiegiturak eta garraioa**

Azpiegitura sare egokia eta neurrikoa, egungo garraio beharrei erantzun koherentea emango diena, are gehiago, garraio mota guztiek, oro har, ingurumenean duten eragina eta eragiten duten CO2 isurketak murriztuko dituen, horra hor, argi eta garbi, Eusko Alderdi Jeltzaleak lortu nahi dituen helburuetariko bat. Aurkezten diren neurriek zuzeneko eragina dute airearen kalitatean.

### **7.1.1. Trenbide azpiegiturak**

Ildo horretan lan egingo dugu, Euskadik denbora gutxi barru trenbideko garraio sare modernoa, eraginkorra eta ingurumen aldetik arduratsua izan dezan.

1.- Euskal Y-a zalantzarik gabeko eta etorkizunari begirako apustua da, Europarekin lotutako Euskadi moderno eta lehiakor baten alde. Trenbidea egiteak ingurumenean izan dezakeen eragina, dagokion adierazpenean behar bezala baloratua, beste zerbaitek gainditzen du: garraio biderik “garbiena” da ingurumenaren ikuspegitik, eta eraginkorra; ibilgailuen kopurua gutxituko du errepideetan, eta salgaien garraioa ere bai, sare mistoa aukeratu baita.

EAJ-PNVk ezbaierik gabeko apustua egin du Euskal Y-aren alde, uste osoa duelako Euskadiren eta hemengo gizartearen etorkizunerako ezinbestekoa izango dela auzoko herriekin zuzeneko lotura izatea, berdintasun egoeran lehiatu ahal izateko.

2.- Euskadirekiko trenbide konexio guzti-guztien hobekuntza sustatuko dugu. Errepideetan segurtasun handiagoa bermatze aldera, errepideetako trenbide-pasaguneak kentzea edo haietan hobekuntza nabarmenak egitea sustatzen jarraituko dugu, eta FEVEren aldirikoen sarea kudeatzeko transferentzia lortzen ahaleginduko gara.

### **7.1.2. Errepide azpiegiturak**

Errepide azpiegituren etengabeko hobekuntza beharrezkoa da bide segurtasuna bermatzeko, mugikortasun iraunkorarekin batera.

1.- EAJ-PNVk bultzatu egingo ditu Azpiegitura eta Garraio Plan Estrategikoaren (PEIT) barruan Euskadiri eragiten dioten jarduketak. Beste ezeren gainetik, jarduketa horietan esku hartu behar duten erakundeen arteko elkar ulertze eta lankidetzaren giroa bilatuko du.

Berotegi-efektuko gasen isurketa oso kontuan hartzeko da garraioan eta ibilgailuen zirkulazioan.

2.- Beraz, EAJ-PNVk ingurumen arloko neurriak sustatuko ditu joan-etorrietan autoa gutxiago erabil dadin, eta ezer baino lehen garraio publikoaren erabilera sustatuko du. Zenbat eta hobeagoak izan barruko zein kanpoko errepide azpiegiturak eta konexioak, hainbat eraginkorragoa izango da garraio publikoa.

### **7.1.3. Portu azpiegiturak**

EAJ-PNVk behin eta berriz eskatu du portuak kudeatzeko eskumena Euskadiri emateko. Hortik abiatuta, uste dugu portuak esparrurik hurbilenetik kudeatzea ingurumenaren aldetik ere onuragarriagoa dela.

Euskadiko portu azpiegituren hobekuntza handiak sustatzen badira, benetako "itsas autobideak" sortzen joateko, onura gehigarri bat aterako da: airearen kutsadura gutxitu egingo da eta itsasoz garraiatuko dira zama-ibilgailuak, daramatzaten salgaiekin; horrela nabarmen murriztuko dira halako ibilgailuek errepidean ematen duten denbora eta okupazioa (Bilbo/Pasaia).

#### **7.1.4. Aireportu azpiegiturak**

1.- EAJ-PNVk behar diren neurriak bultzatuko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoak bere lurraldean kokatutako aireportuak kudeatzeko eskumena izan dezan lortzeko.

2.- Euskadiko aireportuetako (Foronda/Loiu/Hondarribia) jarduera hobetu eta areagotzeko behar diren inbertsioak sustatu eta bultzatuko ditu.

## **7.2. Etxebizitza**

Etxebizitzaren esparrua atmosferara CO<sub>2</sub> isurketak egiten dituen beste esparru bat da.

Eraikuntzari buruzko Oinarrizko Arauen multzoan VIII. legegintzaldian zehar egin den aldaketak ebaluazioa eta jarraipena behar ditu.

EAJ-PNVk eraikuntzaren eraginkortasunaren eta eragimenaren alde egiten du apustu. Etxebizitza bizitzeko gune bat da, eta hura egiteko erabiltzen diren materialen bitartez bero-galerak, erabiltzen den energia eta eraikuntzako materialak ingurumenaren aldetik onargarriak izan behar dira. Beste horrenbeste esan behar da edozein eraikuntzari buruz, "etxebizitza" izan ez arren (bulegoak, merkataritzako lokalak...).

1.- Autonomia erkidegoek etxebizitzaren arloko eskumena dute, eta beraz EAJ-PNVk erne ibiliko da, zintzo errespetatu dadin Konstituzioan ezarritako eskumen-banaketa, eta autonomia erkidegoen inplikazioa eta parte-hartzea sustatuko ditu euren eskumenen erabilera zuzeneko eragina duten erabakiak hartzerakoan.

2.- EAJ-PNVk sustatu egingo ditu ingurumenaren aldetik arduratsuak diren etxebizitzak, laguntza tresna egokien ezarpenaren bidez, etxeetatik datozen CO<sub>2</sub> isurketak murrizteko ildo horretan onargarriak diren aldaketetarako.

## **7.3. Energia**

Elektrizitatea, gasa eta petrolioak gehien erabiltzen diren energia-iturriak dira.

EAJ-PNVk zalantzarik gabe egiten du apustu energia-iturrien erabilera zentzuzko eta arduratsuen alde, eta jarrera irmo eta sendoa hartzen du energia berriztagarriak eta energia garbiak bultzatzearen alde. Testuinguru horretan, konpromiso hauek hartzen ditu:

1.- Gaur egungo erregaien osagarri eta etorkizuneko alternatiba gisa, bioerregaien erabilera buruzko ikerketa sustatzea EAJ-PNVren apustu argi bat da.

2.- Energia berriztagarrien erabilera bultzatzeak berebiziko garrantzia du itzulerarik gabeko energia-iturriekiko mendekotasuna gutxitu dadin. EAJ-PNVk uste du haize-energia eta eguzki-energia sendotzea funtsezkoa dela klima aldaketaren aurkako borrokan, energia garbiak baitira, berotegi-efektuko gasik isurtzen ez dutenak.

3.- Funtsezkoa da, halaber, energia-iturri horien osagarri, energia ekoizteko beste iturri batzuk ere erabiltzea, ahal den neurrian energia ekoizpenaren autosufizientzia ahalbidetzen dutenak.

## **7.4. Industria**

Munduko energiaren agertokian aldaketa sakonak gertatzen ari dira. Europa haien lekuko eta sufritzaile argia da.

Amaitu da energia merkearen garaia. Energia horniduraren inguruko arazoak egunetik egunera nabarmenagoak izaten hasi dira. Inportatutako energiaren mende bizi beharra eta prezio gero eta handiagoak kezka iturri izaten hasi dira eta, zenbaitetan, larritu ere egiten gaituzte. Erabili izan ditugun energia ereduak neurri handian eragindako klima aldaketa baten ondorioen aurrean gaudela ikusteak gizartearen zati handi bat kezkatzen du.

Energia politika berria behar dugu. Are gehiago, energiaren kultura berria, hainbat aldaketari ekin eta aurre egingo diena, batzuetan batere erraza izan ez arren, orain arte ohikoak izan ditugun bizi-sistemetan.

Espainiako Estatuak ez da salbuespena, guztiz kontrakoa baizik beharbada, kontuan hartzen badugu haren energia-mendekotasuna izugarria dela eta, halaber, epe ertain eta luzerako energia politika egonkor eta argirik ez duela.

Europarako energia politikaren hiru helburu handiek Estatuko energia politikaren helburu nagusi ere izan behar dute:

- **Horniduraren segurtasuna areagotzea.**

- **Ekonomiaren lehiakortasuna eta garestiegia ez den energiaren eskuragarritasuna bermatzea.**

- **Ingurumen-iraunkortasuna sustatzea eta klima aldaketari aurka egitea.**

Ugariak eta askotarikoak dira hiru helburu horien atzetik garatu beharko diren jarduketak: gogoeta estrategikoa egin beharko da, eta, hori zorrotasunez burutzearekin batera, gizarteari helarazi beharko zaio, oro har, eta enpresa munduari, bereziki, orientazio orokor eta argigarriaren esparru gisa, eta hainbat neurri hartu beharko dira, mota eta eragin-eremu askotakoak; hemen ez ditugu azalduko horien xehetasunak, baina honako printzipio eta jardunbide hauek proposatuko ditugu haietarako:

1.- Europako energia merkatu bateratuaren alde egin behar da.

2.- Estatuko energiaren arloko arau-esparrua egonkorra eta aurreikusgarria izan behar da; ez da egon behar arbitrariotasun edo inprobisazioen mende, ezta partikularren unean uneko interesei loturik ere.

3.- Gasaren eta elektrizitatearen sektoreen benetako lehia sustatu behar da, eta eraginkortasunez sustatu ere. Norabide horretan irmo egin behar da aurrera.

4.- Merkatuko eragiketak gardenak izan behar dira.

5.- Sendotu egin behar dira, are gehiago, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko planak. Plan horiek modu eraginkorrean garatu behar dira epe luzean. Eta haien garapenean autonomia erkidegoek eginkizun argia eta nagusia bete behar dute.

6.- Beharrezkoa da energia berriztagarrien alde apustu egiten jarraitzea eta,aldi berean, Europako esparrua antolatuz joatea eta hartan parte hartzea, kanpoko hornidurarekiko mendekotasun txikiagoa duen energia mix batean.

7.- Ahalik gehien bermatu behar dira, zorrotasunez, gardentasunez eta CSNrekiko erabateko askatasunez, jarduera nuklearraren segurtasuna, oro har, eta zentral nuklearretako jarduerarena bereziki. Herritarrei haien kudeaketa kontrolatuarekiko konfiantza berreskuratzen lagundu behar zaie.

8.- Bultzada erabakigarria eman behar zaio I+G energetikoari.

9.- Lan egin behar da helburu argi hau lortzeko: arduraz betetzea European ezarrita dauden edo ezartzen diren helburu energetikoak.

10.- CNE indartu eta sendotu egin behar da, sektoreko eragileekiko eta Administrazioarekiko independentziaren aldetik eta handitu eta indartu behar zaizkion eskumenen aldetik.

Esparru orokor horretan, EAJ-PNVk, egunerokoan, berak aurkezten dituen edo beste batzuek aurkezten dituzten ekimen politikoei buruzko bere jarrerak finkatuko ditu.

Horiek banan-banan eta xehetasun guztiekin azaltzeko asmorik ez badugu ere, hona hemen, nolana ere, EAJ-PNVk legegintzaldian zehar bere ekimen eta jarrera politikoekin bete nahi dituen helburu berezietako batzuk:

1.- Estatu mailako helburu handinahiagoak ezartzea, energia-aurrezpenaren arloko politikari dagokionez.

2.- Epe luzerako aurrezpen planak indartzea, beste autonomia erkidego batzuekin lankidetzan.

3.- Kogenerazioa sustatzea, batez ere hirugarren sektorean.

4.- Zalatzarik gabe garatzea, sektore elektrikoan, Energia azpiegituren Estatuko planifikazioa izeneko agirian jasotako azpiegiturak eta oinarriko proiektu estrategikoak, hidrokarburoen sektorean, honako hauek tartean: ordainketa egokia gas arloko jarduera arautuetarako, birgasifikazioa, eta garraio jardueraren ordainketaren onespina instalazio berrietarako, kontuan izanik proiektuen berezitasun orografikoak.

- ENAGASeko Gas Sistemaren Kudeatzaile Teknikoaren banantzea eta benetako independentzia.

- Behin betiko onestea, sektore elektrikoan, elektrizitatea banatzeko jarduerarako ordainketari buruzko errege dekretua.



- Tarifa-defizitaren arazoak konpontzea.
- Sektorearen lehiakortasuna hobetzea.
- Mugaz gaindiko loturak sendotzea.
- Biomasa instalazioak sustatzea berrikuspen araubide bereziari dagokionez.
- Behin betiko onestea bioerregaiei buruzko arauak, bioetanol-biodiesel portzentajeen betebeharra berdintzeari dagokionez, eta bioerregaien inportazioaren gehikuntzaren arazoari heltzea (zerga-beherapen bikoitzaren arazoa).
- Eguzki-energia termikoa sustatzea zaharberritzen diren eraikin eta etxebizitzetan, Eraikinen Kode Teknikoak (CTE) eraikin berrietarako ezartzen dituen baldintzetatik harago.

## 7.5. Lurzoruaren erabilera eta kudeaketa

Lurzorua kontuan hartu beharreko elementu garrantzitsua da, klima aldaketaren ondorioak gutxitu edo saihesteko jarduketak antolatzeko orduan. Lurzoruaren erabilerak eta kudeaketak badute zerikusirik gaur egun agerian geratzen ari diren aldaketekin.

- EAJ-PNVk apustu egiten du luraren erabilera eta kudeaketa arduratsuen alde, haren modalitate guztietan (nekazaritzako lurzorua, baso lurzorua, hiri lurzorua, industria lurzorua...), eta kutsaturiko lurak lehengoratu eta garbitzearen alde.
- Autonomia erkidegoek eta udalek duten erantzukizuna oinarri hartuta, lurzoru mota guztien erabileraren eta kudeaketaren gaineko eskumenak erabiliz, eta kontuan izanik nola baliatzen ari diren Estatuko legeak autonomia erkidegoen eskumenak ahalik gehien murriztu eta mugatzeko, oinarri orokor batzuk zehaztetik harago doan oinarrizko legeria sektorialaren bitartez, Eusko Alderdi Jeltzaleak, ekimenen bidez, gaur egungo eskumen-banaketaren errespeturik zorrotzena defendatuko du.
- Lurzorua da natur ondareari eta biodibertsitateari eusten dien ingurunea, eta modu arduratsu eta koherentean kudeatu behar da, ondare eta biodibertsitate horiek iraun dezaten, garapen sozioekonomikoarekin orekan. Ildo horretan, EAJ-PNV, aurkeztuko dituen ekimenen bidez, oreka horri eusten saiatuko da, eremuen iraupena arriskuan jarri gabe; izan ere, eremu batzuetan lurzoruaren erabilera eta kudeaketa mugaturik egon daitezke natur ondarearen eta biodibertsitatearen kontserbaziotik harantzago, eta beste batzuetan, aldiz, muga zehatz batzuen faltak arriskuan jar ditzake inguruko biodibertsitatea eta natur ondarea.

## 7.6. Hondakinen kudeaketa

- EAJ-PNVk hondakinen kudeaketaren arloko politika eraginkor eta dinamikoaren alde egiten du apustu.
- Murrizketa, berrerabilera eta birziklapena hondakinak kudeatzeko politiken gako-elementutzat jotzen dira.
- EAJ-PNVk arlo honetako eskumenen erabileraren errespetua defendatuko du, egungo eskumen-banaketan oinarrituta: udalak eta autonomia erkidegoak.
- EAJ-PNVk hondakinen murrizketan, berrerabileran eta birziklapenean oinarritutako kulturaren aldeko ekimenak defendatuko ditu, eta garrantzitsua da hiru osagai horiei beste bat gehitzea: lehengoratzeta (hondakinek degradatutako guneak lehengoratzeta, alegia). Halaber, administrazioen arteko lankidetzan eta gizarte osoaren parte-hartzean oinarritutako kulturaren alde egingo du.

## 7.7. Naturguneen babesa eta baliabide naturalen kudeaketa

- Klima aldaketaren erronkari erantzuteko, gogotik lan egin behar da naturguneen babesaren eta baliabide naturalen kudeaketaren arloan. Baliabide naturaletako bat ura da, funtsezko eta ezinbesteko elementua bizidunontzat.
- EAJ-PNVk uste du beharrezkoa dela neurri arduratsuak aurkeztea. Naturguneen babes maila guztien bilakaeraren eta dinamikaren ebaluazioa eta etengabeko jarraipena (hezetasuna, parke naturala, biosfera erreserba, parke nazionala etab.) garrantzitsuak dira neurri egokiak hartu ahal izateko. Ildo horretatik, zenbait

gunetan espezie autoktonoen iraupena arriskuan jartzen duten espezie exotiko eta inbaditzaileek sortutako arazoei irmoki erantzuten dieten ekimenak bultzatu eta sostengatuko ditu.

- EAJ-PNVk egungo eskumen-banaketa defendatzen du, eta bere ekimenen bitartez jarraituko du eskatzen naturgune horiek euren hurbileneko esparruan kudeatu daitezela: autonomia erkidegoetan, inguruko udalekin lankidetzan estuan.
- EAJ-PNVk behar diren neurriak aurkeztuko ditu, eta behar izanez gero defendatu ere bai, naturguneetan garatu diren usadio eta ohitura tradizionalak mugatzeko, egiaztatzen baldin bada horiek natur ondarean eta biodibertsitatean aldaketak eragiteko arriskua sortzen dutela. Halaber, mugaturik edo debekaturik dauden usadio eta ohitura tradizionalak berreskuratzeko ekimenak aurkeztuko ditu, egiaztatzen baldin bada haien garapena lagungarria dela eta izan dela naturguneari bere ezaugarri bereziak eman dizkioten baldintzak iraunarazteko.
- Ura naturguneen eta biodibertsitatearen babesean eta zainketan zuzeneko eragina duen baliabide naturala da; halaber, eragin handia du eskualde bateko giza jardueraren eta jarduera ekonomikoaren garapenean. EAJ-PNVk uste du baliabide hori gero eta estuago loturik dagoela erabilera zentzuzko eta arduratsuari, baita azpiegitura dibertsifikatuen garapenari ere, uraren erabilera guztiei (nekazaritza, industria, hiriko erabilerak, adibidez garbiketara eta ureztatzea, eta giza kontsumoa) erantzun egokia emateko.
- EAJ-PNVk, beraz, bere ekimenen bitartez, legegintzaldian zehar bultzatu egingo ditu Plan Hidrologiko Nazionalen interes orokorrekotzat jotzen diren arren Euskadin oraindik burutu gabe dauden azpiegitura guztien garapena eta burutzapena.
- Halaber, plan horren barruan egiten ari diren jarduketan jarraipenari ekingo zaio, jarduketa horiek ezarritako epeetan burutu daitezela.
- Ureztatze Plan Nazionalaren esparruan, EAJ-PNVk sustatu egingo ditu Euskadirentzat (batez ere Arabako Lurralde Historikoan) beharrezkotzat jotzen diren azpiegiturak garatu eta burutzeko ekimenak, funtsezkoak direlako ureztatze sistemari lotutako nekazaritzako jarduera garatzeko.

## 7.8. Ingurumen arloko hezkuntza eta erantzukizuna

- Klima aldaketari aurre egiteko ez dira nahiko administrazioen lana eta gogoia, gizarte osoak egin behar du ahalegina.
- EAJ-PNVren iritziak, klima aldaketaren kontrako neurriak hartu eta jarduketak egiteko mundu mailako erronkak gizarte osoa behartzen du parte hartzera.
- Horren haritik, aurreko legegintzaldian zehar egin izan duen moduan, EAJ-PNVk erakundeen, gizarte eragileen eta gizarte osoaren parte-hartzea eragiten duten ekimenak bultzatzen eta sostengatzen jarraituko du. Ekimen horien bitartez, ingurumenaren aldetik arduragabeak diren usadio, ohitura, aztura eta jarrerak aldatu behar dira.
- Gizarte osoaren ingurumen-hezkuntzaren esparruan, EAJ-PNVren helburua izango da ingurumenaz arduratzen den gizarte kultura sortzea, uste osoa baitu klima aldaketaren erronka XXI. mendeko gizartea osatzen duten pertsona guzti-guztietatik dagokiela. Esparru pertsonaletik edo pertsona bakoitzari dagokion erantzukizun-esparrutik; ildo horretatik doazen ekimenak babestuz eta bultzatuz.

“Ez kutsatzea” pertsona guztien ardura eta betebeharra da, eta naturguneak, natur ondarea eta biodibertsitatea babestu, zaindu eta lehengoratzeko betebeharra, berriz, gizarte osoari dagokio, bai legez ingurumen-erantzukizuna dutenei eta bai halakorik ez dutenei ere.

- EAJ-PNVren aburuz, legezko betebeharrarekin batera, badugu betebeharrak sozial eta pertsonal bat ere: etorkizuneko belaunaldiak ingurumenaren aldetik iraunkorra den bizilekua uztea. Funtsezkoa da hori gauzatzea, klima aldaketaren mundu mailako erronkari eraginkortasunez ekiteko.
- EAJ-PNVk apustu argia egiten du klima aldaketaren erronkari aurre egiteko ahaleginak batzen dituzten ekimenen alde, maila guztietako lankidetzara eta parte-hartzeak erakunde mailan eskumen-banaketa errespetu zintzoarekin uztartu behar direlakoan.

## 7.9. Europako zuzentarauak: norainokoa eta edukiak

- Ingurumen gaiei buruzko Europako zuzentarauekin aurreko legegintzaldian egin diren transposizioak, oro har, haietan ezarritako epeetatik kanpo egin dira.
- Ildo horretan, EAJ-PNV zuzentarauak bete daitezten arduratuko da, ez bakarrik barneko antolamendura ekartzeko transposizio-eperei dagokienez, baita transposizio hori, norainokoaren eta edukien aldetik, ez dadin izan EBk berak zuzentarauren esparruan aurreikusitakoa baino murriztaileagoa edo zorrotzagoa. Horren haritik, aurreko legegintzaldian inoiz gertatu izan dira halako egoerak, eta EAJ-PNVk bere ekimenen bidez eskatu du transposizioaren ondoriozko barne antolamendua ez zedin izan jatorrizkoa baino zorrotzagoa edo murriztaileagoa, zuzentarauak berak aurreikusten zituen mugetatik harantzago jotzeko inolako arrazoirik ez zegoela iritzi zaionean.
- Beste alde batetik, EAJ-PNVren ustez ezinbestekoa da autonomia erkidegoek zuzenean parte hartzea Europako erabaki guneeetan. Hortaz, EAJ-PNVk, orain arte egin duen bezala, Euskadik EBko erabakien esparruan presentzia izatea bermatzera jotzen duten ekimenak sustatu eta aurkeztuko ditu, eta ahaleginak egingo ditu zuzentarauek zuzenean ukitzen dituzten gaietan eskumen eskusiboa dutenek, hau da, autonomia erkidegoek, euren ahotsa entzunarazi ahal dezaten, eta ahots hori aintzakotzat har dadin bai zuzentarauren norainokoa eta edukia zehazten direnean eta bai Espainiako Gobernuak zuzentarauren transposizioa egiten duenean ere.
- EAJ-PNVk ekimenak aurkezten jarraituko du Euskadiri dagozkion eskumenen urratzeen kontra, zuzentarauren transposizio prozesuetan, edo are Europako Kontseiluak garapen iraunkorarekin edo ingurumen-iraunkortasunarekin zerikusia duten gaiei buruz hartu eta lege mailara jasotzen diren erabakien kasuan ere, halakoek, zenbaitetan, aurreko legegintzaldian gertatu izan den bezala, goitik behera deuseztatzen baitituzte eskumen-ahalmena eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen ezaugarriak, berezitasunak eta espezifikotasunak, baita haren erakunde-sarea eta erakundeen arteko eskumen-banaketa ere (ikus landa ingurunearen garapen iraunkorrari buruzko Legea).

## 7.10. Nazioarteko konpromiso eta protokoloak

- Kyotoko Protokoloa eta horren betearazpena, horra hor klima aldaketaren aurrean daukagun erronkaren gakoetako bat. EAJ-PNVk protokoloa betetzearen alde apustu egiten du, eta halaber beharrezkotzat jotzen ditu haren berrikuspena eta jarraipena. Ildo horretan, aurreko ataletan jaso den bezala, CO<sub>2</sub>-aren eta berotegi-efektuko gainerako gasen isurketak murrizteko ekimenak bultzatu eta sustatuko ditu garraioa eta etxebizitza bezalako esparruetan, hor ere garrantzi handiko gas isurketa egiten baita.
- Badira nazioarteko tratatu, hitzarmen eta bestelako lankidetzatresnak garapen iraunkoraren eta ingurumenaren alorretan, Estatu espainiarrak berretsi dituenak. EAJ-PNV horiek guztiak bete daitezten arduratuko da eta horretarako behar diren baliabide eta bitartekoen hornidura eskatuko du.
- Gainera, garatzen ari diren herrialdeekin alde biko hitzarmen eta akordioak sinatzearen alde egingo du. Horrela, ahal den heinean eta neurri eta tresna egokien bidez, herrialde horiek ere parte hartu ahal izango dute gizarte eta herrien etorkizuneko erronkari aurre egiteko zereginen: gizarte eta herri moderno, lehiakor, eraginkor eta solidarioak lortzea da erronka, ingurumen-iraunkortasunaren ikuspegitik, klima aldaketaren aurkako borrokari bermeekin heldu ahal izateko.